



ttipi-ttapa



MODA gehigarria / 26

BASERRIKO LANA AFIZIO ETA OFIZIO

Momentuko lana utzi eta nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizitza erabaki dute eskualdeko hainbat gaztek. Lan lotua dela dioten arren, mundu horretan egin nahi dute aitzinera. / 8



RAKEL RICO

Nafarroaren Eguna apirilaren 28an

Bertze urte batez, egun osorako ekitaldiak prestatu ditu Baigorriko Basaizea Kultur Batasunak / 44

SINADURAK



ZOKKETA / 56



Irudi ikusgarriak utzi ditu Korrikak eskualdetik pasatzerakoan / 32



Apirilaren 26an udaberriko feria egingen dute Elizondon / 40



Idazleen Biltzarra eta oroitarriaren inaugurazioa Saran apirilaren 22an / 42

Iruñeko

Arte
Eskola



Escuela
de Arte

Pamplona

Ate irekiak:
apirilak 30
18:00

Amaia Kalea, 27 - 31004 Iruñea // T. 848431310
escueladeartepamplona.com // ea.pamplona@educacion.navarra.es

Iruñeko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola 2019-2020 IKASTURTEAREN IKASKETAK

Goi Mailako Diseinu Ikasketak

· Barne Diseinua
berria - lau urte

Goi Mailako Lanbide Heziketa

· Ilustrazioa *berria*
· Eskultura teknikak
· Ebanisteria Artistikoa
· Grabatu eta estanzazio teknikak
· Argazkilaritza
· Ikus-entzunezko grafikoa

Erdi Mailako Lanbide Heziketa

· Produktu Grafiko inprimatuen laguntzailea
· Produktu Grafiko interaktiboaren laguntzailea

Lanbide Heziketa Berezia

· Lan artistikoetan laguntzailea

Batxilergo Artistikoa

   @escueladeartepamplona

EUSKALTZAINDIA SARAKO 36. IDAZLEEN BILTZARRA




Euskararen
erakunde
publikoa
Office public de
la langue basque

Euskaltzaindiak, Euskararen Erakunde Publikoaren babesarekin,
apirilaren 22an, honako argitalpen hauek aurkeztuko ditu.



Euskara Batua eta
Ipar Euskal Herria: 1964-2018
Bilduma: Jagon 19
Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos



1757ko gutuneriari buruzko osagarriak
eta gogoetak «Othoi çato etchera»
Bilduma: Iker 36
Egilea: Xabier Elosegi



Janpierra Lexardoarteren bizitzea
edo Basabürüako trajeria
Bilduma: Euskaltzainak 28
Egilea: Jakes Sarraillet



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Pasioa

Gustuko dut pasioa, gustuko dut pasioz beteriko jendea. Pasio hitza irakurrita beharbada, bat baino gehiagoren irudimena maitasun edota sexu kontuetara joanen da, baina, sentitzen dut zuen interesa zapuztea, ez, ez dut ertz hori ukituko. Pasioa aunitzez zabalagoa baita, bizitzako gauza eta momentu guztietan aplika daitekeena, eta nire ustez, aplikatzekotan, aunitzez gauza eder eta sakonagoak lortzen dira. Gatzarekin pareka daitekeen zerbait bada, pasioa. Janariari gatzak falta zaionean, zozoa dela erran ohi dugu. Bada, pasiorik gabeko jendea edo pasiorik gabe gauzak egitea, gatzik gabeko janaria bezalakoa da. Gatzik gabeko janaria osasungarria den bezala, pasiorik gabeko zerbait ona izan daiteke, baina ez da gauza bera. Pasiorik ez da falta, zorionez, jende aunitzengan. Pasioz milaka lagunek jarduten du. Eta hori nabari da. Euskal Herrian zer erranik ez, boluntariotza lan pasionalez beteriko lurraldea dugu gurea, eta hala iraun badu, eta iraunen badu, pasioak bizi beharko du, hori galduz gero, gatzik gabeko herria izanen baikara, hau da, ez-herria.

«PASIOA GALDUZ GERO GATZIK GABEKO HERRIA IZANEN GARA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ez da VIP gunea, beharra baizik

Gogorra da gero horrelako kanpaina baten beharra izatea, baina hala izaki... Ezet, ez direla gu baino gehiago aparkatzeko leku berezia eta zabalagoa izateagatik, baina ez dira gu baino guttiago ere. Mugitzeko arazoak dituztelako ate nagusietatik hurbilago utzi dezaketela autoa, ez alferragoak direlako. Ez dira VIP, baina bai bertzeak bezain inportanteak.

NABARMENTZEKOAK



ELENA ZABALETA
NIE-KO LEHENDAKARIA



XABAT ILLARREGI
BERTSOLARIA

Nafarroako Ikastolen Elkarteko presidente kargua hartu du Elena Zabaleta Andresena oronoztarrak. Baztan Ikastolako lehendakari izan zena NIEko 13. lehendakaria izanen da.

Saio eder eta txukun baten ondotik, Leitzako bertsolari gazteak Nafarroako Eskolarteko txapela jantzi zuen apirilaren 5ean Arantzan. Bigarren Ekhiñe Zapiain beratarra galditu zen.

ATZERA BEGIRA



2009-04-16 · TTIPI-TTAPA · 492 zk.

Nafarroaren Eguna gogoan

Duela hamar urte, Baigorriin Nafarroaren Eguna antolatzen duen Basaizea Kultur Batasunak 30 urte bete zituela eta, erreportajea kaleratu zuen TTIPI-TTAPAk. Basaizeako lehendakaria zen Argia Oltzomendi elkarrizketatu zuen eta hastapena nola izan zen kontatu zuen: «Lehenbiziko Nafarroaren Eguna 1978an antolatu zuten. Orduan harreman arras guti zen nafarren artean baina zeuden sare ttipietatik abiatuz, gazte abertzale talde batek Nafarroaren Eguna antolatzea erabaki zuen, egun batez bi aldeetako nafarrak elgartzeko, lotura egiten duen hizkuntzaren inguruan: euskara». Geroztik egin duen ibilbidea bistakoa da. Aurten, apirilaren 26an eginen den Nafarroaren Egunak 31. edizioa beteko du.



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus



Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrutz, Irune Elizagoien,
Maidier Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalza, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Ixaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 38€
eta Malerreka
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€





KOLABORAZIOAK

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Suteak, beltzunea, tristura...

Otsaila gaizki bukatu dugu eta martxoak okerrago hasi. Sua, kea eta beltz kolorea izan dira nagusi gure inguruan.

Otsailaren 9tik martxoaren 6a bitarte, Nafarroako mendiak sutan egon dira, eta 93 sute erregistratu dira, gehienak gure eskualdean, Nafarroa iparraldean. Esanguratsuena, akaso, Goizuetakoa izan da, izan ere, astebeteren barruan bi aldiz eman zioten su, 200 hektarea kiskaliz.

Urteetan atzera begiratuz gero, honako datu hauek aurki ditzakegu: 2012. urtean 568 sute (344 hektarea errez), 2013an 177 sute (250 ha), 2014 urtean 464 sute (329 ha), 2015ean 324 sute (361 ha), 2016ko abendua eta 2017ko apiril artean 663 sute, 1.153 hektarea errez... Eta 2019ak zer ekarriko ote digu? Ikatza, beltz-beltza.

Arrazoi bilaka nabil etengabe, izan ere, gure ingurumenari egindako kaltea ikaragarria da. Arrazoietakoa bat prezipitazio falta izan daitekeela bururatzen zait. Informazioa bilatu ondoren, garbi dago prezipitazioa eskasa izan dela bai otsailean baita martxoan ere (otsaileko batez bestekoa 130 l/

m²koa da eta aurten 92.7 l/m² besterik ez du egin, eta martxoan batez bestekoa 133.6 l/m²koa da eta aurten 73.2 l/m² egin ditu). Hau ikusirik lehorrea izan daiteke arrazoia, ezta?

Bestalde, mendira osteratxo bat egitera

«ZER EKARRIKO DIGU 2019AK? IKATZA, BELTZ-BELTZA»

ateratzerakoan, mendiak oso zikinak daudela ikusteko aukera dugu. Garbitzeko, kontrolatutako suak egiteko ohitura dago, baimenak eta beharrezkoak diren segurtasun neurri guztiak hartuz. Zikintasun horrek gizartearen bizimodu aldaketarekin zerikusi handia duela pentsatzen dut, izan ere, lehen sektorean lan egiten duen biztanleria kantitatea asko jaitsi da gure eskualdean. Inguruan gelditzen diren nekazarieei galdetu eta Gobernuari leporatzen diote utzikeria, laguntza eskasiak medio. Hau ere izan daiteke arrazoia, ezta?

Baina... ez! Aurtengo suteen atzean giza eskua dagoela dudarik ez dut egiten. Gainerako faktoreek lagundu dutela? Noski baietz, baina gizakia izan da erruduna, nahiz eta ikertzaileek azken hitza eduki.

Lerro hauek erabili nahi nituzke suhiltzaileek egiten duten lana goraiatzeko, zuek baitzarete benetako heroiak. Professionalki suak itzaltzen lanean aritzen zareten uniformedun guztiei bihotz-bihotzez mila esker. Baina nire aipamen berezia suhiltzaile boluntario eta uniformerik gabe sua itzaltzeko gogo eta intentzio guztiarekin lan egin duzuen guztientzat izatea gustatuko litzaidake, musu-truk zuen biziarriskuan jartzeko inolako beldurrik ez duzuen guztientzat. Zuen adorea mirestekoa da eta nire begirune guztia duzue. Zuen lana ezinbestekoa da gure eskualdean eta ez zaizuela behar bezala eskertzen iruditzen zait. Zuei ere, bihotz-bihotzez nire eskerrik beroena helarazi nahi dizuet, banan-banan guztiei, modu batean edo bestean, suak hiltzen lagundu eta laguntzen duzuen guztiei. Biba zuek!



MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA

Aste Santua eta zerua

Dagoeneko urtea hasi genuela zenbait hilabete pasa dira. Urtezahar inguruan gaudela, urte berria irudikatzen hasten gara, batez ere, bere jaiegunei begira. Badakigu noiz izanen diren sanferminak, noiz Santiago Eguna, edo noiz Emakumearen Eguna. Bakoitzak bere herriko festak ospatzeko egunak ere, erraz kokatuko ditu. Euskararen Eguna abenduaren 3an izanen da eta Eguzkiari urteko bira eman orduko, berriz ere Eguberrien bueltan, abenduaren 25ean, jaiegun batzuk izanen ditugula badakigu.

Baina jende aunitzek bere buruari ere galdera hau egiten dio: noiz izanen da aurten Aste Santua? Aurreratuko da? Berandu izanen da? Noiz? Zergatik ez da beti sasoi berean gertatzen? Bada... erantzun hori jakiteko, komeni da zerurat begiratzea. Edo hobe erran, zeruan izanen den gertakari bat kontutan hartu behar da, ez baikara zeruari so izaten orain heldu diren opor-egunen zain. Aldez aurretik badakigu, egutegiari begira bada ere, noiz kokatu duten oporraldia urtez urte, erabaki horiek pertsonen menpe daudelako.

Udaberriari gaude.

«BALITEKE ZUETAKO BATZUK ZERURA BEHATZEKO TARTEA HARTZEA»

Martxoaren 20ko 22:58an estreinatu genuen urtaro honek 92 egun, eta 18 ordu iraunen ditu. Ipar Hemisferioan Udaberriko ekinozioa gertatzen delarik Eguzkiak bere berezko mugimenduan

Lurraren ekuatorea igarotzen du. Horren ondorioz, momentu jakin horretan gauaren eta egunaren iraupena berdina da gure planetan. Ekinozio hitzak, Latinetik *aequinocium* (*aequus nocte*), gaua eguna bezain luzea erran nahi du eta egun horretatik aitzin gure hemisferioan eguna pixkanaka-pixkanaka luzatuz joanen da eta argi-minutu gehiagoz gozatzeko aukera izanen dugu. Baina, Aste Santua egutegian kokatu nahian genbiltzan. Zer ikusteko du honek?

Ekinozioa noiz gertatu den jakiteaz gain, jakin behar dugu hori gertatu eta berehala, noiz izanen den hurrengo ilargi bete. Izan ere, fase hori gertatu eta hurrengo igandean kokatzen baita beti Aste Santuko Pazko-Igandea. Hori da, labur erranda, egun hauetako oporraldiaren egutegidantzaren arrazoia.

Deskantsurako garaia heldu den honetan baliteke zuetako batzuk zerura behatzeko tartetxoren bat hartzea. Udaberriko zeruan, apiril bukaeran, Hartzeme Nagusia izanen duzue protagonista, baita Leo ere, nahiz eta aspaldi bizi ziren eskaldunek zeruko zati horretan Zaldi bat bistaritzen zuten. Marte ilunabarrean ikusteko aukera izanen da, Jupiter eta Saturno aldiz, gaupasa egiten baduzue ikusiko dituzue eta azkenik, Artizarra modu ederrean egunsentian agertuko da Merkurio tikiarekin batera. Zerua oskarbi izan dezazuela!

11 GALDERA LABUR

XABIER MENDIKOA ELIZONDOAR GAZTEA

«Irlandarrek duten errespetua kontutan hartzekoa da»

Nor da Xabier Mendikoa?

25 urteko elizondoar gazte bat, bidaiatzea gustuko duena eta natura maite duena.

Zein zaletasun dituzu?

Ttikitan, familiarekin, inguruan, baita Pirinioetan ere mendiko zaletasuna sortu zitzaidan. Arroila-jaitsiera egitea arras gustuko dut eta, nola ez, tarteka afari eder bat lagunekin! (irriz)

Afaria jateko prestatu egin behar...

Sukaldari izateko goi-mailako zikloa egin nuen eta asteburuetan sukaldari lanetan ibili izan naiz. Arras maite dut, bereziki ez dakidan hori prestatzen ikastea. Nire iduriko, pasioz sukaldatzea da ongi egiteko sekretua eta nik zerri-hankekin lortu dut! (irriz)

Urte erdia daramazu Irlandan...

Baztandar batek lana bazela erran zidan. Hasmentan biok sukaldean hasi ginen, orain zerbitzari aritzen naiz eta al-dian behin sukaldean. Bai kulturalki baita hizkuntzari dagokionez ere, ohituratzea kostatzen da baina laketu gara. Etxekoak eta hurbilekoak lagungarri izan dira.

Etxera bisitaren bat egin duzu?

Urtarrilean itzuli nintzen, bi astez egon nintzen, familiarekin eta lagunekin otordu eder batzuk eginez.

Zer da Euskal Herritik faltan botatzen duzuna?

Momentu jakin batzuetan etxeko berotasuna eta bertze batzuetan pintxoak (irriz).

Itzulera aurreikusia duzu?



Uda aldera itzuliko naiz, segur aski, sanferminetako ohitura ona segituz...

Irlandatik zer ekarri nahiko zenuke?

Irlandarren jarrera, orokorrean, harriztekoa da. Gehienbat jendearekin duten hartu-eman, errespetua. Arras kontuan hartzekoa da.

Nolakoa izaten ari da esperientzia?

Arras gomendagarria, egunero zerbait ikasten da, eta jende aunitz ezagutzen da.

Nola animatuko zenituzke gazteak?

Gehien kostatzen dena etxetik mugitzea dela erranez. Behin kanpora ateraz geroztik, erraz egiten da...

Baduzu bertze bidaiaren bat buruan?

Uda hondarrean Noruega iparraldean egiteko espedizio bat dugu esku artean. Bertzalde, proiektu pertsonalen batzuk ere prestatzen ari naiz, Alpeetarako.

1951tik
Casa Cambra
 lantzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!
 Ohe estalki kolekzio anitza

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
 edredoi fundak · albormozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Autoa, klima-aldaketa eta herri ttikien hustutzea

JON ABRIL

Bera eta Usurbil arteko bidea egiten dut nire autoan, egunero, lanera joateko. Ekologikoki desastrea dela jabetuta ere, ez dut bertze alternatibarik. 30 minutu inguru behar ditut bi udalerrri horien arteko 40 kilometroak egiteko. Autorik gabe izan naiz egun batzutan, eta garraio-publikoa erabili dut: distantzia bera egiteko bi ordutik goiti behar izan dut, eta hiru garraio-bide desberdin.

Nafarroan garraio publikoa hutsaren hurrena da Iruñerrikan kanpo. Gipuzkoan eta Bizkaian anitzez ere hobekia go antolatua dagoen arren, hobetzeko anitz du. Gainera, administrazio desberdinetan bizi eta lan egitearen ondorioak pairatu behar izan ditut: autobuseko txartelak Gipuzkoan balio dit, ez ordea Nafarroan, egon ere ez dagoelako. Garraio-bide desberdinen artean ez dago loturarik, eta ordu erditik goiti esperoan egon beharra arruntena da. Autopistako ordainsaria ere turista alemaniar batek bezala ordaintzen dut: ez dagokit inolako deskonturik, egunero ibili arren. Ez naiz gipuzkoarra. Ez lurralde eta naziotasun ikuspegirik, ez laneko mugikortasun-politikak sustatzeko neuririk.

Garraio-publikoa hiritik, hirirako eta hiritarrentzat dago pentsatua, mugikortasunerako politika guztiak bezala. Autobus bakan batzuk baino ez inguruko hirietara (Beratik, adibidez, egunean bana Donostiara eta Iruñeara, bortz-pasei Irunera). Ipar Euskal Herria ez da existitzen. Bera eta Sara arteko 12

kilometroak autobusez egiteko bortz ordu eta lau autobus aldaketa behar dira. Oinez aisa gutiago. Etxalar, Arantza, Igantzi, Beintza-Labaien, Zugarramurdi edo Amaiurko herritarrek ez dute autobus bakar bat ere aste osoan. Ez dute eskubiderik. Eta biztanle gutti garez ez zaio inori ardura. Azken 50 urteotan bertzelako politika-publiko batzuk asmatu badira ere (irakaskuntzan, kultura-eskaintzan, osasun arloan...), mugikortasunaren gaian auto pribatuaren erabilera sustatzera mugatu da.

Badakit irtenbide zaila duela gaiak, baina irtenbide berriei heldu beharko diegu, batetik, klima-aldaketaren ondorioak gutitzeko; eta, bertzetik, herri ttikien hustutzea ez dadin behin betikotu. Bi dimentsio horiekin egin behar da lan, eta arazoei errotik heldu. Eskaera-eskaintza logika gainditu, eta herritarrengan pentsatutako zerbitzua diseinatu behar da. Diru anitz kostako da, baina AHT edo aireportuetan gastatutakoarekin aisa irudikatu daiteke.

Klima-aldaketa gutitzeko autoaren erabilera mugatu nahi da. Horren aldekoa naiz, baina beldur naiz, ez ote den autoa zenbait eremutan debekatu berriz bertzelako alternatibarik eraiki gabe: garraio-publiko eraginkorra eta maiztasun handikoa, disuasio-aparkalekuak hirien kanpoko aldean, garraio-publikoarekin erdigunera segituan eramanen duena, beti ere, arrazoizko denboretan, 24 orduz. Gaur-gaurkoz, herri ttikietan bizi garenak autora kateatuta bizi bertzerik ez dugu. Hori edo isolamendua. Zerbitzuz hustu dira herriak, eta derrigortuak gaude oinarritzko zerbitzuetako gehienetarako

herri mugitzera: osasun-zerbitzuak, irakaskuntza, lanpostu kualifikatuak, aisialdia, merkataritza... Desiragarriena herrietan ahalik eta zerbitzu gehien edukitzea litzateke, baina egoera iraultzea hagitz zaila izanen da, eta zenbait zerbitzu sekula ez dira egonen hirietatik kanpo (unibertsitatea, ospitaleak, administrazio nagusia...).

Beraz, hiru erpeneko politika ezinberetzeko da: garraio-publiko eraginkorra, klima-aldaketa murrizteko neurriak, eta herri ttikien hustutzea gelditzea. Hirurak aldi berean eta elkarrekin lantzen ez baditugu ez da eraginkorra izanen. Berandu gabilta, eta ondorioak hagitz larriak izanen dira.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttapi.eus



948 63 54 58

HEMEROTEKA



«Frantziako Estatuan arrakasta handia izan genuen [Gutariko bat musika taldearekin], 300 bat lagunuen aurrean jotzera iristeraino. Guk ez genukeen inoiz halakorik aurreikusiko. Bordele, Paue edo Okzitaniako Tolosatik jotzera gonbidatzen gintuzten talde atzerritarrekin batera eta iristerakoan kartelburuak geu ginela konturatzen ginen. Zaleek gure kantak ezagutzen zituzten gainera, bazekiten noiz zetozen erritmo aldaketak (...) Zarata kanonaren kontra egiten duena da, zerbait izatekotan. Horrexegatik da tokiaren eta garaiaren araberakoa. Horretan ari direnak gutxiesteko inongo asmorik gabe, noski, baina ez du eragin bera nois-rocka 90eko hamarkadan edo gaur egun egiteak (...) Beste hainbat lurraldetan gertatu den gisara, euskal diskogintzak ere ez du jakin zarata metabolizatzen eta batzuetan patrimonialki nahiko era miopean jokatu du proposamen berriak onartu eta bultzatzeko orduan».

XABIER ERKIZIA | ARGIA. 2019.03.31
LESAKAKO MUSIKARIA



«Poliki-poliki lana eta lasterketak pilotzen ari naiz eta denboraldiko nire helburu nagusia hurbiltzen ari zait, Italiako Giroa. Ilusio handiarekin nago. Indartsu ailegatu nahi dut Girora, baina ez dut gehiegi bete nahi lasterketen egutegia. Euskal Herriko Itzuliaren ondotik, Girorako prestatzen hasiko naiz (...) Simon Yatesi ahalik eta gehien laguntzea izanen da helburua. %100ean egon nahi dut (...) Ez dugu baztertuta Frantziako Tourrera joateko aukera, baina ikusi beharko dugu osasun aldetik nola nagoen Giro bukaeran, ea errekuperatzeko nola nabilen eta buruz ere nola nagoen (...) Duela hamabi urte pelotoian hasi nintzenez nuen ilusio berarekin jarraitzen dut. Lasterketetara joaten naizenez, gauzak ongi egitea gustatzen zait eta hasierako helburu berak ditut. Ez naiz hamabi urteotan egin dudanarekin konformatzen, hobetzeko ilusioa eduki behar da eta ahalik eta onena ematen saiatu behar da».

MIKEL NIEVE | D. NAVARRA. 2019.04.05
LEITZAKO TXIRRINDULARIA



BOTA BERTSOA

**EGOITZ
GOROSTERRAZU**
ITURENGO BERTSOLARIA

Nafarroako txapelketa

Doinua: Bazkaltzean gogoia neukan

*Bukatu zaigu bertze behin ere
Txapelketaren kondena
Kanporaketan hasi egin zen
Bertsoaren gozarena
Hamar saiotan ibili gara
Nafarro osoan barrena
Batzuontzako lehena zena
Bertzeontzako azkena
Ahots berriak entzun ditugu
Gauzarikan politena
Etorkizuna badatorrela
Berririkan hoberena*

*Final haundian bi urtez izan
Denez biko aldaketa
Fin jardun ziren Soto, Terreros,
Maia, Lazkoz, Zelaieta
Fernandez ere, a ze finala
Nork egin zuen protesta
Ta Illarregi anaiak bikain
Jendea txaloz gainezka
Gozatu ederra hartu genuen
Eta ezta berriketa
Azken batean txapelketa da
Bertsolaritzaren besta*

GOITI ETA BEHEITI



Jubilotekan aktore lanetan ere bai



Nork erranen zien Elizondoko jubilotekekoei casting batean parte hartuko zutenik? Ba horixe bera egin zuten apirilaren 3an. Aski gustura ibili ziren gainera!



Elgorriagan zaborra behar ez den tokian

«Zerriak garbiagoak dira». Halaxe dio Elgorriagako Mututa parajearen hondakinen edukiontzien gunean dagoen oharra. Zaborra kanpoan, nahasita... Gaika banatuta daude edukiontzia, eta traste haundien bila etxera joaten dira. Ez ote dugu ikasiko?





Lurdes Argain Bergara narbartearra bi alabekin, bere haragitarako behiak ondoan dituela. UTZITAKO ARGAZKIA

Etxean ikusitakoa ogibide bihurtu dute

Ez dira bat edo bi momentuko lana utzi eta nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizitzea erabaki duten eskualdeko gazteak. Lan lotua dela dioten arren, ez dira hartutako erabakiaz damutu, horixe delako maite dutena

G. PIKABEA

Harro daude nekazari eta abeltzain izateaz; harro etxean lan egiteaz eta harro egiten dutenaz. Ez dute astelehenetik ortziralerako zortzi orduko lanaldirik, baina ez dute horren penik. Horren gainetik dago baserrian lan egiteak ematen dien guztia. Lan lotua dela dioten arren, mundu horretan egin nahi dute aitzinera.

Basozain, fabriketan, dendentan, gasolindegietan eta bertzelako lanetan ibiliak dira. Ez zen hori, ordea, Arkaitz, Juan, Aitor, Lurdes, Ibai, Imanol, Josu, Mikel eta bertze hainbat gazte nahi zutena. Hortaz, momentuko lana utzita, baserrietik bizitzea erabaki dute.

Gasolindegitik baserrira

Eguneroko «aktiboa» du Lurdes Argain Bergara 38 urteko nar-

bartearrak, eta maite du haragitarako behiekin eta ardiekin lan egitea. Ia zortzi urtez denda batean ibili ondotik, gasolindegi batean aritu zen, eta 2004an, «aita zenak aurretiko erretiroa hartu zuzenean», gurasoen lanbideari heldu eta nekazaritzara dedikatzea erabaki zuen.

Fabrika utzi eta behiekin

Imanol eta Ibai Juanena Aleman 26 eta 24 urteko urroztar anaiak dira. Bere garaian Goi Mailako mantentze-lanen ikasketak egin zituzten eta duela urte

«BETITIK BEHIEKIN LAN EGITEA GUSTATU ZAIGU»

IBAI ETA IMANOL JUANENA, URROZ

bat inguru arte etxetik kanpo aritu izan dira lanean, «gehienbat produkzioan eta muntatze-lanetan». Iaz, ordea, gurasoen bidea hartzea pentsatu zuten eta geroztik, esnetarako behiekin egiten dute lan.

Bigarren sektoretik lehenbizikora

Josu Jorajuria Bazterrika 35 urteko donamariarrak mantentzen du industria eta elektrizitateko ikasketak egin zituen eta hamahiru urtez industrian ibili da lanean. Duela bizpahiru urte, ordea, «buaruari bueltaka» hasi omen zen,

«GARBI NUEN BASERRIAN GELDITU NAHI NUELA»

JOSU JORAJURIA, DONAMARIA

eta «baserrian gelditu nahi nuela gero eta garbiago» zuela ohartu zen. Gaur egun, ofizialki oraindik nekazari bezala hasi ez bada ere, baserriko lanetan ibiltzen da, ardiak jertziz eta bildotsekin harat eta honat. Bere gurasoek nekazaritza izan dute lanbide eta «martxan dagoen esplotazioa denez, nire egunerokoa baserriko lanak egitea da». Azaldu digunez, «aurten Nafarroako Gobernuak gazteen lehen instalakuntza programan aurkeztu naiz eta deialdian sartzen banaiz, aurten instalatuko naiz eta laguntzak arditetik instalazioak hobetzeko erabiliko ditut».

Zer ikusi hura ikasi

Ez dute arrotza lanbidea. Etxean ikusitakoa da ogibide bihurtu dutena eta ez omen da zaila izan erabakia hartzea.

Narbartearren gurasoek esnetarako behiekin lan egiten zuten eta «hori zen ttikitatik ikusi eta gustuko nuena». Hala ere, argi zuen ez zuela esnetarako behiekin lan egin nahi: «esnetarako 30 behierekin ezinean egoterraino ailegatu ginen. Denak kendu edo bertze modu batera segitzeko ordua ailegatu zen. Gainera, esnetarakoekin segitzea esklabutza iruditzen zitzaidan». Baserrian segitu nahi zuenez, «ardiak mantenduz, haragitarako behiak paratzeko apustua egin genuen». Gaur egun, «batetik aretzeak gizendu eta harategietara saltzen ditugu eta bertetik, ardiak jertziz eta esnea saltzen dugu».

Urrozko anaiek «betitik» behiekin lan egitea gustuko izan dute. Azaldu digutenez, «gurasoek beti behiak izan dituzte, lehen etxeko sotoan eta aspaldiko urteetan granjan».

«EZ NINTZATEKE HUTSETIK HASTERA AUSARTUKO»

LURDES ARGAIN, NARBARTE

Hori da «ttikitatik ezagutu duguna». Hortaz, lanbide horrekin «segitzeko aukera izanda, aprobetxatzea erabaki genuen». Gainera, «aunitzik pentsatu gabe» hartu omen zuten bertzera lana utzi eta behiekin has-teko erabakia. Egutero 4.000 litro esne inguru bildu eta Kaikuri saltzen dizkiote.

Jorajuria ere «baserrian jaioa» da eta «ttikitatik gurasoei laguntzen» aritua. Bere aitzineko belaunaldiak «bizimodua baserrian aterata» izan dutela ikusita, berak ere bide hori hautatu du: «baserrian erreleboa hartzeko ordua iritsi zela ikusi nuen. Ez dut baserria eta ingurua abandonaturik ikusi nahi». Hortaz, «gurasoek egindako lanari segida» eman nahi izan dio, «arditegia eta artaldea eginak daude eta ez da hutsetik hastea bezala». Orain duten artaldearekin segitzeko asmoa du: «esnea inguruko gaztandegi batera saltzen dugu eta bildotsak bertako tratante bati».

Oinarri batetik abiatuta

Gaur egun hutsetik baserria ogibide bilakatzea «arrant zaila» dela uste du Argainek. Bere kasuan, «inbertsio handiak» egin behar izan zituzten arren, «etxean oinarri bat baguen» eta alde horretatik, errazagoa izan zela uste du: «esnearen kupoa saldu eta diru hura haragitarako behiak erosteko aprobetxatu genuen. Baina hortaz aparte, inbertsio handiak egin genituen: nabe berria, makineria guztia berria... Transformazio handia izan zen, baina oinarri batekin egindakoa». Aitortu digunez, «hutsetik hasi beharko banu, ez nintzateke hasiko».

Haragitarakoekin hasteak bertze aldaketa bat ere ekarri zien: «esnetarako behiekin hilabete hondarrean litro kopuruare araberako txeke jasotzen genuen». Haragitarakoekin, ordea, «urtean boz-pasei aldiz Nafarroa eta Europatik jasotzen ditugun dirulaguntzetatik bizi gara. Harategian ordaintzen denaren er-



Josu Jorajuria Bazterrika donamariarra ardiekin lanean. UTZITAKO ARGAZKIA

«HARAGITARAKO BEHIEKIN LAGUNTZETATIK BIZI GARA»

LURDES ARGAIN, NARBARTE

«ANTOLATZEKO ASKATASUNA EMATEN DU»

JOSU JORAJURIA, DONAMARIA

«ETXETIK BERTAN LAN EGITEN DUGU ETA NAGUSI GABE»

IBAI ETA IMANOL JUANENA, URROZ

diaren erdia ere ez digute ordaintzen eta laguntzarik gabe ez genduz deus eginen. Garrantzitsua da hori onartzea».

Une gogorak bizitakoa da narbartearra: «joan den urtean, birus edo bakteria bat tarteko, aretze aunitz hil zitzaizkigun. Irtenbiderik ez zegoela eta urte hondarrean alferrik aritu girela ikustea psikologikoki kolpe gogorra» izan omen zen. «Dena uztea» ere pentsatu zuela dio, baina egoera hura gaindituta, «aurten hobe» dabiltza: «kezka hor dago, baina bertze modu batera moldatzen ari gara».

Lan lotua baina polita

Urrozko anaiek esnetarako behiak dituzte baina eurentzat

«lan polita» da. «Lan guztiak bezala alde onak eta txarrak» dituela kontatu digute, baina nabarmendu dutenez, «baserriko lana gustatuz gero, hagitz polita da». Alde onenak «etxetik bertan lan egitea eta nagusirik ez izatea» direla aitortu digute eta txarrena «lotura handiko lana» izatea: «bazkatu, jeztea kontrolatu, intseminazioak... Ezin da hutsik egin». Hala ere, ez daude bakarrik: «gurasoak eta bi anaia izanda, ongi moldatzen gara egunak txandakatzeke, gehienbat as-teburuetan».

Donamariarrak ere baserriko lana «lotua» dela dio; «ez duzu deskonektatzen». Baina bertetik, «egunerokoa antolatzeke askatasuna» ematen duela azpimarratu du: «kontziliazio familiarra, etxeko martxa...». Alde onak gehiago dira bere irudiko: «naturari begira egiten duzu lan, garairen arabera lanak antolatzen dira eta herrian eta etxe inguruan ateratzen duzu ogibidea».

Astelehenetik igandera

Goizean jaiki eta azieendekin lanak eginez hasten da hirur abeltzainen egunerokoa. Argainek «Legasako eta etxeko granjetako lanak» egiten dituzte lehenbizi eta «08:30erako handik edo hemendik etxera etortzen naiz. Amatxiri haurrak prestatzen lagundu eta eskolara eramaten ditut». Etxera itzultzean gosalduta eta berriz ere lanean segitzen du. «Etxeko teilatua ez zait aise gainera eroriko», dio umoretsu. Bazkalondoa, «20-30 minutuko siesta egin eta berriz ere lanean segitzen dut». Eskolara haurren bila «normalean» amatxi joaten dela kontatu digu, «eta bera da bi haurrekin parkean egoten dena». Hori ere azpimarratu du: «amatxi gabe ezinezkoa nuke egiten ditudan lanen erdiak egitea». Parketik bueltan, «haurrak granjan nirekin gelditzen dira eta beraiekin egoteko aprobetxatzen dut. Gero etxera joan, dutxatu, afaldu eta ohatzera. Eta bihara →



Imanol eta Ibai Juanena Aleman urrotzar anaiek esnetarako behiekin egiten dute lan. UTZITAKO ARGAZKIA

—> munean gauza bera. Ez dugu iganderik, baina hori ez da arazoa, ohituak gaude».

Juanena anaiak ere goizean hasten dira lanean: «07:00etatik 09:00etara behien lanak egin eta akitzean gosalduta egiten dugu». Indarrak hartutakoan lanean segitzen dute: «egunez beti izaten da zeregin, bai granja barrenean baita kanpoan ere». 18:00etan itzultzen dira behiengana. «19:30 arte berriz ere behien lanak egiten ditugu». Egun batzuetan «ordu gehixeago eta bertze batzuetan guttixeago» aritzen dira, eta «tarteka, lanaren arabera, goizak edo arratsaldeak libratzeko aukera izaten dugu».

Donamariarrak «garaiaren arabera, egunerokoa aldatu» egiten zaiola adierazi digu. Azaroan ardiak umatzen hasten zaizkie: «ardiak barrenean daude eta bazkatu eta bildotsak zaindu behar dira». Abenduan jectzen hasten dira eta halaxe segitzen dute abuztura arte. Tarte horretan, «egunero 06:00etan eta 18:00etan ardiak jetzi eta bazkatzen ditugu». Baina etxekoekin egoteko ere hartzen du denbora: «egun batzuetan alaba ttikienarekin egotea tokatzen zait eta goizetan alaba zaharrena eskolara eramaten dut». Handik

bueltan, «beti egiteko zerbait» aurkitzen du: «ardiak belaira atera, bazterrak txukundu...». Gainerakoan, «udaberrian eta udan belarrak egiten ditugu».

Sektorea krisian?

Jorajuriaren hitzetan, sektorea «nahiko zahartua» dago eta baserritik bizitzea «zaila» da, «bertze lanbide aunitzetatik bezala». Bizimodua aldatu denez, «baserriek garai berrietara egokitu» behar dutela dio. «Argi dago lehenagoko baserri ereduetatik ezin dela bizi». Azken urteotan, «lehen sektorea aunitz industrializatu» denez, «nekazariak autonomia haundia galdu» duelakoan dago: «ezin dugu merkatu horrekin lehiatu eta bertze bide batzuk aurkitu behar ditugu».

Bere ustez, aitzinera egiteko, nekazaritzak «iraunkorra» izan beharko luke, «bertan ditugun baliabideak egoki erabiliz eta kalitateko produktuak ekoiziz». Merkatuan «gure produktua baloratzea» ere garrantzitsutzat jo du, «non ekoiztia den eta duen kalitatea bereiziz». Horrez gain, «gutti profesionalizatu»-tako sektorea» dela uste du: «nekazaritza eskola bat beharko luke gure eskualdeak».

Donamariarrak bezala, urrotzarrek ere urteekin egoe-

ra aldatu dela adierazi dute: «lehenago aunitzez ere animalia guttiagorekin bizi zitezkeen, baina gaur egun instalazio eta makina modernoie esker lanak aunitzez ere errazago egiten direnez, animalia kopuru handiagoarekin lan egin beharra dago soldata ona lortzeko. Aitzinerapausoak eman ezean, lehenago moduan lan eginda zaila da konpetitiboa izatea». Kontuak kontu, ez dute uste gaur egun sekto-

«LEHENGO BASERRI EREDUETATIK EZIN DA BIZI»

JOSU JORAJURIA, DONAMARIA

«GIZARTEAK ARRAROTZAT JOTZEN GAITU»

IBAI ETA IMANOL JUANENA, URROZ

«NI GUSTURA BIZI NAIZ EGITEN DUDANAREKIN»

LURDES ARGAIN, NARBARTE

rea krisian dagoenik. «Baina esnearen prezioa zerbait igoz balitz, hobea», gaineratu dute.

'Ohikoa ez den aukeraketa'

Gizartean baserritik bizi direnak guttiesteko joera izan badela sumatua dute urrotzarrek eta donamariarrak. Juaneneatarren hitzetan, «gaur egun, baserriko lanarekin jarraitzea ez da hain ohikoa eta gizarteak arrarotzat jotzen gaitu, gehienbat gizarteak bizi kalitatea eskertzen duelako, egunean zortzi ordu lan egin eta asteburuak libre izatea».

Bide beretik jo du Jorajuriak: «hemengo aunitzendako nekazaritza lanbide txarra da eta horregatik jotzen du kanpora lanera». Baina berak argi du baserritarrik gabeko etorkizuna hagitx bertzelakoa izan dela: «gure eskualdea eta ingurua aunitz aldatuko da hemen ez bada baserritarrik gelditzen». Hori «gehiago baloratu» beharko litzatekeelakoan dago: «gure produktuen gibelean dagoen lana, ingurugiroaren zaintza, herrietan bizitzea, ekonomia zirkularra...».

Etokizunari begira ilusioz

Egoera horri buelta emateko segituko dute hainbertze maitate duten ogibidearekin. Urrotzarrek «egunerokoa bizi» dutela diote, eta etorkizunari «ilusioz eta gogotsu» heldu nahi diote, «are gehiago eskualdean gazte baserritar gehiago hasi» direla ikusita. «Baserri mundua gustuko duen edozeini beldurrik gabe aitzinera egiteko» erran nahi diote: «elkarlanean, gauzak errazago egiten dira».

Argainek, kanpotik ikusita, bere egunerokoak «eromena» irudi dezakeela dioten arren, berak ez du halakorik sentitzen. «Garrantzitsuena egindakorekin norbera kontent sentitzea da, eta ni kontent bizi naiz egiten dudana erekin». Agintariei «egoera gehiago ez zailtze» baino ez die eskatzen.

Disc Golf-zelaia lehiaketa batekin ireki dute Igantzin

IrriSarri Landen Nafarroako lehenbiziko disc-golf zelai homologatuak hartu duen estreineko jarduera izan da

TTIPI-TTAPA

IrriSarri Land I. Disc-Golf txapelketa jokatu zuten apirilaren 6an. Lehiaketa honekin abiatu da Igantziko disc-golf zelaiko jarduna; kirol horretarako Nafarroako lehenbiziko zelai homologatu hori da aurtun parkeak eskaintzen dituen berrikuntza nabarmenetako bat. Txapelketara bertaratu ziren Maitena Ezkutuari, Nafarroako Gobernuako Turismo eta Merkataritza zuzendari nagusia, Juankar Unanua, Igantziko alkatea (beraiek izan ziren lehen jaur-

tiketak egin zituztenak) eta disc-golfaren sustatzailea Andoni Zenarruzabeitia eta Koldo Toribio, Euskadisc Golf-eko ordezkariak.

Larunbateko txapelketa MPO eta junior mailan jokatu zuten eta Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako disc-golf klubetako 30 bat jokalaririk izan ziren, tartean Miguel Caparrós eta Carlos Ortega, aurtengo eta iaizko Espainiako txapel-dunak. Lehen sailkatuek aterpean gauak eta disc-golf zelairako sarrerak eskuratu zituzten sarritzat.



Andoni Zenarruzabeitiak disc golf-zelaiaren ezaugarriak azaldu zituen. UTZITAKOIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondakinen egutegiko saria Berara

Urtero bezala, aurtun ere, hondakinen egutegiarekin eskualdeko dendetan erabiltzeko 300 euroko lau erosketatxartel zozketatuko dira. Bigarren zozketako saria Bortzirietara joan da, eta zehazki, Dori Rios beratarrari egokitu zaio.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elkarrizan eta Nagusilan bilduak

Elkarrizan taldeko eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkariak Nagusilaneko boluntarioekin elkartu ziren Donostian hilaren 3an. Elkarren arteko harremana sendotzeko baliogarria izan zen eta ez dute baztertzeko etorkizunean elkarrekin jardueraren bat egitea.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

EH Bilduk baikor baloratu du udalaren kudeaketa

2018ko kontuen itxiera onartu zuen Udalak azken osoko bilkuran eta zorra lau urtetan %45 murriztu dela azpimarratu

TTIPI-TTAPA

2018ko kontuen itxiera onartu zuen Udalak azken osoko bilkuran. EH Bildutik diotenez, «gure ildoari jarraituz beharrezko inbertsioak egin dira dirulaguntzak bilatuz Udala ekonomikoki ez sobera estutzeko». 2017-2019 azpiegitura planari esker lehentasunezko obra aunitz egin dira eta eginen dira aurtien: Eztegarra pilotalekua, Agerrako sareak, herriko ur sarea, Legarbidea auzoa eta Musika Eskola.

Inbertsio haundiak egin badira ere, Udalaren zorra jaus-

ten segitu dutela adierazi du EH Bilduk: «2015 hasieran 1.034.000 euro zor zituen udalak, orain 577.000 zor ditu, hau da 457.000 euro edo %45 jautsi dugu zorra lau urtez».

Datu positiboa bada ere, EH Bildutik salatu dute «Espainiako Gobernuaren legeek Udalak dirua aurreztera behar izaten gaituztela gure inbertsio ahalmena murriztuz. Udaltxeek sortzen dugun superabita erabiltzen du estatuak bere kontuen egoera berdindu eta Europak ezarritako defizit helburuak betetzeko».

IV. Azienza feria apirilaren 27an eginen dute

IV. Azienza Erakusketa eginen dute Beran apirilaren 27an. Kiroldegi aitzinean dute hitzordua. Bertaratzen direnek azientak ikusteko ez ezik, inguruko ekoizleen salgaiak erosteko aukera izanen dute. Bazkariarekin borobilduko dute feria.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Musua'

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Musua* aurkeztuko dute maiatzaren 4an, larunbatean, 17:00etan Altzateko pilotalekuan. Labiaga ikastolak antolatuta duen emanaldirako sarrerak salgai daude 2 eurotan (0-2 urte) eta 8 eurotan (gainerakoak).

Argaitzeko harrobia Memoriaren Toki izendatzeko lehen urratsa eman dute

TTIPI-TTAPA

Sartagudako Memoriaren Parkea, Otsoportilloko leizea, Olabeiko hobia, Igari eta Bidankoze arteko errepidea, Erreniegako hobietako memoria eta emakumearen errepresioaren memoriarako Azkoiaren dagoen eskultura Nafarroako memoria historiakoaren toki bezala erregistroan behin betiko inskribatzeko, Memoria Historikoaren Koordinazio Batzorde Teknikoak bere informea onartu zuen apirilaren 4an. Horiez gain, Nafarroako Memoriaren Ins-

titutua bertze zazpi toki izendatzeko lanean hasia da, tartean Berako Argaitzeko harrobia.

Argaitzeko harrobian 130 lagun hil zituzten guttienez gerra garaian, gehienak Gipuzkoatik ekarriak. Horrela, 1936ko kolpearen ondoko errepresioaren ondorioz Nafarroan pertsona gehien hil zuten lekua izan zen. Udalak proposatu du izendapena. Aipatzekoa da Memoria Historikoaren Batzorde Teknikoan dagoela Fernando Mikelarena Berako historialaria.



UTZITAKO ARGAZKIA

Felix Errandonea 42. Memoriala

Gure Txokoak 42. aldiz antolatu du Felix Errandonea zenaren omenez, junior mailako txirrindulariei zuzendutako lasterketa. Apirilaren 7an egin zen proban, Lizarte taldeko Diego Uriarte izan zen bizkorrena. Txirrindularitza ataleko Alberto Retegik eta Joseba Lasartek banatu zituzten sariak.

JAIONE - COCOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

ANTZUZELAI
S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



BORDALARRIA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

- Bertaño sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

Bestetako egitarauko azal-lehiaketa martxan da

Lanak maiatzaren 31 bitarte aurkez daitezke Herriko Etxean eta 400 euroko saria izanen du irabazleak

TTIPI-TTAPA

Bestetako egitaraurako azal lehiaketaren deialdia egin du Kultur Batzordeak. Lanak maiatzaren 31ko 13:30 arte jasoko dira, Herriko Etxeko bulegoetan.

Lehiaketa irekia da, hau da, nahi duenak parte hartu ahal izanen du lehiaketan eta nahi bezainbertze lan aurkeztu ahal izanen ditu. Lanek Berako bestetako giroa islatu beharko dute eta azalean *Berako Bestak 2019* testua agertu beharko da. Era berean, azalak ezin izanen du bertzelako testurik eraman.

Argazkiak edo irudiak kolorezkoak izan behar dira eta paperean aurkeztuko dira, bertikalki 18x27 zentimetroko neurrian eta euskarri sendoa.

Gaia, estiloa eta teknika librea izanen da eta lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Bertzela erranda, ezin izanen dira bertze lehiaketaren batera aurkeztu eta ezin dira bertze inoren lanak kopiatu.

Lanen giblean goitizen bat baino ez da paratuko eta apar-



Bestetako giroa islatu behar du lanak.

teko gutun-azal batean erantsiko dira egilearen datuak, kanpoko aldean goitizena paratuz. Gutun-azalaren barruan, orri batean, ondoko datuak agertu beharko dira: izen-abizenak, adina, helbidea, posta kodea, herria, telefonoa eta posta elektronikoa.

Saritutako lana Udalaren esku geldituko da eskubide guztiekin, betiere egiletza aitortuko da. Lanak ez dira itzuliko eta sarituak izan ez direnak programan erabiltzeko edo erakusketa egiteko eskubidea bere egiten du Udalak.

Saria bakarra izanen da. Irabazleak 400 euro jasoko ditu (%15eko PFEZ atxikipena ezarriko zaio). Lehiaketa hutsik ere geldi daiteke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Labiagako ikasleak memoria historikoaz

Labiaga ikastolako ikasleek herriko hainbat artelanen bidez memoria historikoa landu dute. Argaitzeko harrobian hasi eta herriko plazan bukatu zuten ateraldia, 1936-39ko bizipen latzak gertutik ezagutuz. Memoriaren etsaia denbora izan beharrean, isiltasuna dela ondorioztatu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txistulariak Hernaniko lehiaketan

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako txistulari gazteek Hernaniko XIV. Txistulari Gazteen Txapelketan parte hartu zuten martxoaren 30ean, Arnas Estuka taldearekin. Ez ziren lehen hiru taldeen artean sailkatu, baina diploma dotore horiekin bueltatu ziren.

LABEZAR
Astelehenerdik ortziralerara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

Mendi lasterketa antolatuko du lehen aldiz Beti Gaztek

167.000 euroko aurrekontua izanen du aurten elkarteak, inoiz baino bazkide gehiago (1.287) dituen urtean

AITOR AROTZENA

167.000 euroko aurrekontua izanen du aurten Beti Gazte elkarteak, urteko batzarrean onartu zuenez. Iaz 150.178,13 euroko gastuak eta 176.907,05 euroko sarrerak izan ziren. Zuzendaritza batzordean ez dago aldaketa handirik eta Jose Luis Sunsundegik segiko du presidente lanean.

Urteko ekitaldiei dagokienez berrikuntza garrantzitsu bat bada. Izan ere, aurten Beti Gazte lasterka taldea indarrez hasia da, eta horren erakusgarri, lehen aldiz antolatuko duen mendi lasterketa. Ekainaren 15ean egingen dute. Horrekin batera, Muxiko dantza taldea eta kantu taldea ere sortu ditu aurten Beti Gaztek. Aurten ere Donosti Cup txapelketako partidak hartuko ditu Mastegi futbol zelaiak uztailaren 8tik 13ra. Batzarreak sokatira taldea zoriondu zuen urte osoan lortutako emaitzengatik.

Gaur egun 1.287 bazkide ditu elkarteak, inoiz baino gehiago eta 574 kirolari lizentzia.

Ezagutu Dezagun Lesaka

Bertze urte batez, Lehen Hezikuntzako ikasleei zuzendutako *Ezagutu Dezagun Lesaka* lehiaketa ere deitu du Beti Gaztek, Udalaren laguntzarekin. Herriari buruzko 30 galdera egiten zaizkie eta erantzun-orria apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dute Irain Eskola publikoan, Tantirumairu ikastolan edo Beti Gazte elkarteak.

Ikasleak hiru mailatan banatuko dira. A mailan, 1. eta 2. kurtzoko ikasleak sartu dira; B mailan, 3. eta 4. mailako ikasleak eta C mailan, 5. eta 6. mailakoak. Hiruetan sari berdina izanen dituzte: lehenbiziko saria 40 eurokoa izanen da, bigarrena 35 eurokoa, hirugarrena 30 eurokoa eta laugarrena 25 eurokoa.

Sarrietan ez da dirurik emanen, material didaktikoa erosteko txartelak baizik. Berdinketa gertatuz gero, zozketa egingen da. Maila guzietako onenari sari berezia emanen zaio. 12 galdera baino gehiago erantzuten duten guzietari sarritxoak emanen zaizkie.



AITOR AROTZENA

Tantirudantza jaialdia frontoian

Eguraldiak ez zuen lagundu eta euripean dantzatu behar izan zuten *Zubigainekoa* herriko dantzariak eta jaialdia frontoian egin zen. Herrikoekin batera, Zumaiako Txori Txiki, Lezoko Murixka eta Faltzesko Makaia taldetako dantzariak izan ziren. Arratsaldeko dantza gidatuak ere frontoian izan ziren.



RAFAEL ENETERREAGA

Mikel Laboa gogoan kontzertu handia

Herriko musika bandak eta Azken Trena taldeak elkarlanean kontzertu gogoangarria eskaini zuten Harriondoan, Mikel Laboaren oroimenez. Abeslari handiaren heriotzaren 10. urtemuga gogoratu zuten, Jokin Pinatxok landutako musikaren bidez. Maddalen Arzallus izan zen gonbidatua.

BOXBONTA EGUNERO IREKIA
JATETXEA

+ Eguneko menua
+ Menu berezia
+ Karta
+ Banketeak



Otsango, 1 - Lesaka - 948627519 / 948627503

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Hemen erabili
kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESACA
T. 948 63 71 27

Usoa kooperatibak batzarra eginen du larunbatean

Apirilaren 20an, 19:30ean, kultur etxean eginen dute urteko ohiko batzarra

IRUNE ELIZAGOIEN

Apirilaren 20an, larunbatean, Usoa kooperatibak ohiko batzarra eginen du. 19:30ean bilduko dira kultur etxean eta 2018ko akta irakurri eta onetsi ondotik, 2018ko galera eta irabazien balantzea eginen dute. Era berean, dendari bu-

ruzko informazioa, produktu sorta baten zozketa eta galderak zein iradokizunak egiteko tarteia izanen dute. Batzarraren ondotik, La Basquen afalduko dute, 21:00etan. Afarira joan nahi dutenek aitzinetik kooperatiban izena eman behar dute.



SAIOA OTAZO

Herritarrak Bardeetako Media Xtremen

Zortzi herritarrek Bardeetako Media Xtrem ibilbidea egin zuten apirilaren 7an. Arguedas herrian hasi eta bukatu zen 51 kilometroko itzulia. 09:00 aldera abiatu ziren eta 3 bat orduz egin zuten buelta, lagunarte eta eguraldi ederraz gozatuz. Guztira 800 txirrindulari baino gehiagok parte hartu zuten.



BORTZIRIETAKO KORRIKA, EDURNE ARTOLA ETA LANDAGAIN ESKOLA

Harrera beroa egin diote Korrikari

Apirilaren 8an hartu zuten Korrikaren lekukoa. Bortz kilometro eta erdiz herritarrek ibili zuten, gazteek, Altxatak, guraso elkarteak, Larraburuak, herriko okindegiak eta Elutsak, Herriko Ostatuak, Udalak eta Gure Kuadrillak erositako kilometroetan. Ikastetxeokoe apirilaren 5ean ospatu zuten.

BEROPEL
egurrezko pelleta
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzí (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

Biltokiko kideak elkartearen egoitzaz mintzatu dira bileran

Maiatzean Almadiaren Eguna doaz eta Xabi Telletxearen omenez jauntsiera eta mendi irteera prestatzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, martxoaren 30ean izan zuten Biltoki Elkartearen kideek ezohiko batzar orokorra. Bertze zenbait gairen artean, azken urte honetan garrantzitsuena izan dena eztabaidatu zuten: egoitza berriarena. Bazkide talde baten erabakia hartzeko luzapena eskatua zuen lehendik. Bertze leku batzuk bilatzeko aritu dira lanean bitarte honetan, baina ez da posible izan; apiril hondarreko bozketan lehengo bi aukerak izan dira berriz ere mahai gainean.

Maiatzeko ekitaldiak

Maiatzean egin beharreko ekitaldi sailtxo baten berri ere eman dute batzordekoak: hilaren 4an Almadiaren Eguna bisitatzera joan dira Burgira eta maiatzaren 18rako Xabi Telletxearen omenezko jauntsiera antolatzen ari dira, eta hurrengo astean, 25ean, mendi irteera izanen dute, Sunbilitatik aterata Etxalarreraino.

Junta berritzea

Junta berritzeari dagokionez, diruzain lanetan Izaskun Tapia ari da Jaione Seinen ordean.



Elizondoko dantzariak bertako hiruzpalau neska lagun dituztela. OSKAR TXOPERENA

Giro ederra izan dute Udaberriko Bestetan

TTIPI-TTAPA

Aitzinetik iragarritakoa baino hagitzegun eguraldi hobearrekin joan ziren aurtengo Udaberriko Bestak.

Ekitaldiz betetako aste hon-darra izan zuten apiril hasieran, eta bakoitzak bere gustukoa aukeratzeko modua izan zuen: pizza-tailerra; eskulanak

egiteko tartea; mus-tximista; buruhandi, kankailu eta dantzarien saio ikusgarria; umorezko ikuskizuna eskaini zuen bakarriketalaria; zinema-emanaldiak; muxikoak; mendi itzulixka, musika; mahai-inguruko otorduak... izan zituzten. Guztien artean karririk girotu zituzten.

Ordu txikitan jende franko bildu du Korrikak

Udalak, eskolak, Gurasoen Elkarteak, Biltoki Elkarteak eta herriko gazteen ordezkariak eraman zuten lekukoa Aiesteneko bordako atletik Garaikola ingurura. Ondotik, Biltokik antolatuta, gosaria egin zuten.



O. TXOPERENA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Apirilaren 16an, Pintxo Pote berezia
etorri eta disfrutatu!
LA VILLA
Ostatua - Jatetxea - Sauteri
La Villa jatetxearen irekiera
Karrika Nagusia, 14 - IGANTZI - ERRESERBAK: T. 666 455 124

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreforma, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Herriko taldeak omendu ditu Kultur Batzordeak

Jendetza bildu da frontoian laugarren aldiz egin den trikitixa jaialdian

NEREA ALTZURI

Arrakastatsua eta ederra. Halaxe atera zen apirilaren 6an laugarren aldiz egin zen trikitixa jaialdia. Bertze urte batez, frontoia bete egin zen eta antolatzaileak eta parte-hartzaileak gustura gelditu ziren. Herriko naiz inguruko trikitilari eta panderojoleak elkartu ziren, eta horiekin batera Lezoko dantzariak aski saio txukuna eskaini zuten.

Musikarien eta dantzarien saioen tartean, Udaleko Kultura Batzordeak herriko talde

eta elkarteak omendu zituen, urtez urte herriaren alde musu-truk egindako lana eskertzeko. Ekaitza Elkartearen izenean Markel Jorajuriak, Gazte Asanbladaren izenean Jaione Maziziorrek, Emakumearen Memoria Taldearen izenean Aitziber Almandozek, Zahar Txoko jubilatuen elkartearen izenean Camino Ordokik eta Guraso Elkartearen izenean Aintzane Iturriak oroigarria eta lore-sorta bana hartu zituzten Igor Ugalde kultur zinegotziaren eskutik.



Herriko trikitilariak, omenduak eta Lezoko dantzariak jaialdian. MIKEL LARRETxea



G. PIKABEA

Mendi lasterketa bikaina

Argazkian ageri diren Jexux Larretxea, Imanol Lukanbio, Beñat Mitxelena, Xabi Iturria eta Gotzon Arenasekin batera, Asier Apezetxea eta Jabier Iparragirrek egin zuten mendi lasterketa. Irudian lasterketa ixteaz arduratuko ziren Aratz Mendizabal eta Daniel Etxegarai ere ageri dira.



G. PIKABEA

Herritarrak Korrikan

Apirilaren 8an, goiz aski ibili ziren herritarrak Korrikan parte hartzeko, eta aitzinetik, girotzeko, Korrika Ttiki jendetsua egin zuten apirilaren 5ean herrian barna. Arratsalde borobiltzeko, Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketa izan zen eta eskolako gimnasioa tanpetaraino bete zen.



T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net



aterpe
albergea jatetxea ostatua

Primenekobordako gaztak irabazi du XII. lehiaketa

Asteburu Kulturala borobiltzeko, 35 eskulangile elkartu ziren igandeko XII. Artisau Ferialan

MAIDER PETRIRENA

Bertze urte batez, giro ederrean joan da aurten ere Asteburu Kulturala.

Ortzirale arratsaldean haurrak hasi ziren, puzgarrietan salto eginez eta jolasten. Txokolata beroa ere izan zuten indarrak berreskuratzeko. *Ameli eta xirrikitu*en jostunek ipuinekin gozatzeko aukera ere izan zuten Ulibeltzak elkartearen, Amaia Elizagoienen eskutik. Ondotik afari ederra izan zuten.

Larunbat goizean, eguraldi bikaina aprobetxatuz, Zumalekura mendi irteera egin zuten hainbat mendizalek, batzuk herritik abiatuta eta bertzeak Arretxekobordatik. Gosari ederra egin zuten Zumalekun. Arratsaldean, berriz ere puzgarriak izan zituzten tikiak eta mus, txintxon eta partxis txapelketak jokatu zituzten Ulibeltzak elkartearen. Txintxonan Luismi Andueza Latasa suertatu zen irazbale eta Koldo Herrera Urroz bigarren; partxisean, Beñat Iriarte Mikelperizena txapeldun eta Mikel Mariezkurrena Sorozabal bigarren. Musean, bortz

bikoteran artean, Eneko Herrera Urroz eta Julen Juankorrena Iparragirre suertatu ziren txapeldun.

Ondotik, trikopoteoan ibili ziren herrian barna eta gero 50 lagunek Ariztigain kanpian afaria eta besta egiteko aukera ederra izan zuten.

Gazta lehiaketa

Igandean, XII. artisau feria eta gazta lehiaketa frontoian egin zen. Herriko dantzariak beraien emanaldia eskaini zuten frontoien gibelaldeko plazan. Arratsalde partean berriz ere feria ikusteko aukera izan zen. Guztira 35 artisau zeuden, beraien artean herriko talogileak. Arratsaldean zate eder baten zozketa izan zen eta gazta lehiaketaren sari bana keta egin zen. Gazta lehiaketan lehenengo saria, Primenekobordako gaztak irabazi zuen; bigarren, azken urteetan irabazle izandako Migel Anzizar eta Koro Elizondoren gazta suertatu zen eta hirugarrena Pixarneko bordakoa. Zate ederra, berriz, Mari Paz Gelbentzu Almandozek eraman zuen. Txartel guztiak saldu ziren.



Dantza saioa eskaini zuten dantzarietako batzuk. MAIDER PETRIRENA



ITXASO ARRIETA-GORETTI ANZIZAR

Herrian ez, baina herritarrek Korrikan

Herritik pasatu ez den arren herritarrek Korrikan parte hartzeko aukera izan dute. Apirilaren 8an, eskolako ikasle eta irakasleek Doneztebera joan eta bertan egin zuten. 972 km.an, Elgorriagan, Antrotokik, Udalak eta Ulibeltzak elkarteak erositako kilometroan egin zuten kuadrilla honek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ander Larraburuk brontzezko domina

Asteburu Kultureko asteburuan, martxoaren 30ean Mendillorriko kiroldegian, Nafarroako kirol jokoen barne, benjamin mailako judo txapelketa jokatu zen eta bertan Ander Larraburu Hernandorena herritarrek parte hartu zuen. Brontzezko domina ekarri zuen herrira.

VII. Pintxo Astea antolatu dute hilaren 18tik 20ra

Zazpigarren urtez Ariztigain Kanpina, Fonda eta Bustitz ostaldek apirilaren 18tik 20ra bitarte, biak barne, pintxo astea ospatuko dute. Ortzirale arratsaldean hasi eta larunbat arratsaldean akituko da. Igandean, 19:00etan Ariztigain kanpian zozketa egingen dute.

Eskolakoek bi lehiaketetan hartu dute parte

Eskolakoak bi lehiaketetan parte hartu dute: Solera fundazioak antolatutako marrazki lehiaketan, *Zer gustatu litzaizuke arratsalde bat aitona-amonekin egitea* gaiarekin eta Elkar argitaletxeak antolatzen duen ipuin eta marrazki lehiaketan.



Bestetako giroa bildu beharko du kartelak. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bestak iragartzeko kartel-lehiaketa antolatu du Udalak

Maiatzaren 8ra arte aurkeztu ahal izanen dira. San Migel ikastetxeko lehiaketa ere martxan da dagoeneko

MARGA ERDOZAIN

Sanpedroak iragartzeko, Udalak IV. kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan parte-hartze irekia da eta interesatuak maiatzaren 8ra arte izanen dute lanak aurkezteko aukera, udaletxeko bulegoetan.

Formatua eta teknika

Formatua eta teknikari dago-kionez, honako oinarriak errespetatu behar dira: lanak A3 tamainan inprimatuko dira (29,7 x 42,2 cm) eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 guttienezko erresoluzioa dutela. Nahitaez, Do-

neztebeko bestak, ekainaren 28tik uztailearen 2ra testua sartua izan behar dute. Pertsona bakoitzak lan bakar bat aurkeztu ahal izanen du. Lana sinatu gabe entregatuko du eta lanarekin batera sobre itxi batean egilearen izen-abizenak eta kontakturako telefonoa edo posta elektronikoa agertu beharko dira. Bestetako komisioak aurkeztutako lanak baloratu eta lanik hobereena aukeratu du. Irabazleak 150 euro eskuratuko ditu eta bere lanak bai kartela nola bestetako aldizkariaren azala jantziko ditu.

Turismo bulegoa irekita izanen da Aste Santuan

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere, turismo bulegoa Aste Santuan zabalik egonen da. Apirilaren 17tik 28ra, asteazkenetik igandera, bertaratzen diren bisitariei zerbitzua eskainiko zaie. Egunero, goizez eta arratsaldez irekiko dute, bortz orduz.

II. Argazki Rallya maiatzaren 11n izanen da

Martxan da II. Argazki Rallya. Bigarren edizioa antolatzen hasia da Udala eta maiatzaren 11n, larunbatean, egitea aurreikusitako dute. Xehetasunak hurrengo zenbakian emanen dituzten arren, argazkizaleak kamerak prestatzen hasi daitezke.

Liburuaren Egunaren harira, ipuin-kontaketa, zinema-emanaldia eta tailerra

MARGA ERDOZAIN

Apiril hondarrerako hainbat hitzordu antolatu dituzte herrian. Udalaren eskutik, hilaren 21ean, 18:30ean *Super Lopez* zinema-emanaldia izanen dute. Sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Bertzalde, Liburuaren Egunaren bueltan, hainbat ekitaldi izanen dituzte herrian: apirilaren 23an, 17:00etan, Txatxilipurdi elkartearen eskutik, ipuin-kontaketa izanen dute. Ortzirale horretan, *La libreria* filma eskainiko dute 19:30ean.



Ipuin-kontaketa izanen da. ARTXIBOKOA

Ekimen horiez gainera, egun horietan sormen tailerreko kideek egindako lan ederrak ikusteko aukera izanen dute herriko liburutegira bertaratzen direnek.



AINHOA JUANOTENA

Mila esker korrika!

Doneztebe klikatu duzu, gure bihotzek klika egin dute, gure mingainek klika egiten dute, gure paisaia klikatu duzu. Gure mezua eraman duzu lekukoan, 2021. urtera arte bultzada emanen digun mezua; euskarak nozitzen duen enbatei aurre egiten lagundu eta gu klikatzen jarraituko duena.

Udako kontratazioak egiteko prozedura martxan jarri du Udalak

MARGA ERDOZAIN

Igerilekurako hiru sorosle eta ludotekarako langile bat (beharraren arabera berteze bat) kontratatze asmoa du Udalak eta horretarako beharrezkoa den prozedura martxan jarri du. Interesa dutenek *doneztebe.eus* web orria bisitatu edo

Udal bulegoetara jo dezakete. Bertan aurkituko dute lan eskaintzari buruzko informazio gehiago: bete beharreko baldintzak, dokumentazioa non eta nola aurkeztu... Uztaile eta abuztuan eskainiko dituzte igerileku eta ludoteka zerbitzuak.



Herriko joaldunek eta hartzak 21. Korrikan parte hartu dute. KORRIKA

Klika-klika korrika, joare hotsez bete dute karrika

Hartzak, Udaleko zinegotziek, Pulunpa eskolako irakasleek eta Malerrekako eskolako koordinatzaileak astindu zuten lekukoa

ARKAITZ MINDEGIA

20. Korrikan bezala, oraingoan ere, Doneztebetik malda igoz Ituren eta Aurtiz zeharkatu zituen Korrikak, aitzinekoan ilunabar aldean izan bazen oraingoan apirilaren 8an atsaldetan pasatu zen. Eguraldi kaskarrari aitzin eginez, herrian lehen metrotik azkeneko me-

trora bitarte herriko adin guzietako jendea animatu zen bertan korrika egitera, bertze behin ere gure herriko pertsonaiak bertan parte hartuz. Izan ere, Iturengo joaldun eta hartzaren harat-honatak gehitu zitzaizkien karrikako oihuei. Gainerako herritarren errantetan, «zirrara garria» izan zen

Korrikako giroa eta joare hotsak uztartuz laster egitea.

Lekukoa eskuz esku ibili zen herrian egin zuten 974. kilometroan. Iturengo herria, Pulunpa eskola eta Malerrekako eskola ttikien artean hartua zuten eta horien ordezkari gisa udaleko zinegotzi, Pulunpa eskolako irakasle eta Malerrekako eskolako koordinatzaileak beraien artean lekukoa gogor eutsi eta astinduz egin zuten laster.

Herritar dezentek Zubieta-rainoko ibilbidea egin zuten, bertze batzuek, berriz, lehenago utzi zuten. Bakoitzak ahal zuten neurrian, baina euskararen alde laster egin zuten herritarrek ez ziren ez, gutti izan.

Enkarni Genuaren bisita izan dute Pulunpa eskolan

Bertze eskoletan bezala, Pulunpa eskolan akitu dute bigarren hiruhilabetea. Hori baino lehen gelako ikasgaiekin batera Euskal idazleen elkar- teak eskainitako bertze bisita bat jaso zuten bertako ikasleek, Enkarni Genuarena hain zuzen ere. Galtzagorriak izeneko txontxongilo antzerkia ikus- teko aukera izan zuten *Liburuak gozagarri* izeneko programari esker, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek. Helduagoek lehenagotik Patxi Zubizarretaren bisita jaso zuten.

Joko Topaketa

Hiruhilekoari akabila ederra emateko bertze urte batez 9. Joko Topaketa antolatua zuten apirilaren 17rako, asteazkerako. Bertan, adinaren arabera taldeak eginez ekitaldi ederrak antolatuz zituzten Malerrekako eskola ttikietako irakasleek elkarlanean. Horren ondotik, ederki merezitako deskantsua abiatu zuten eta apirilaren 29a arte Aste Santuko oporrak izanen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Indartsu dabil Javier Sein

Han eta hemengo lasterketetan parte hartzen ari da Btt modalitatean Javier Sein. Espainiako Ultramaratoi Teruelen eta Superprestigio proban, 23 urtez azpikoetan Valentzian eta Arnedon bikain aritu da, batean zein bertzean lehenengo postuetan helmugaratuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestak antolatzeko bilera egin dute

Uztailaren erdialdera izanagatik dagoeneko martxan hasi dira herriko besten antolaketa-lanetan. Ideiak bildu eta ekitaldiak antolatzeko, zehazteko eta proposamenak biltzeko asmotan, lehenengo bilera udaletxean egitekoa zuten, apirilaren 11n, joan den ortzegunean.

Zinema emanaldiak apirilaren 18an eta 19n ludotekan

'Happy end' eta 'Idazketa tailerra' filmak eskainiko dituzte 19:00etan ludotekan

FERMIN ETXEKOLONEA

Herritarrek ez dute aspertze-ko astirik izanen Aste Santuan. Izan ere, Udalaren eskutik, zinema emanaldiak izanen dira egunotan.

Ostegunean, hilaren 18an, *Happy end* filma eskainiko dute, 19:00etan; eta bihara-

munean, apirilaren 19an, ordu eta toki berean, *Idazketa tailerra*, perspektibarik gabeko gazteen erretratua lantzen duen lana, pantailaratuko dute.

Bi emanaldiak dohainik izanen dira eta lerro hauen bidez herritarrei bertaratzeko deia egin nahi izan diete.

Hauteskundeetako mahaikideak erabakita daude

Maiatzaren 26an, hondarreko igandean, izanen diren udal hauteskundeetako mahaikideak erabakita daude dagokeneko. Aurtengo hauteskundeetan Arantxa Lasheras izanen da lehendakari eta Gorka Fuentesi eta Patxi Indakoe-txeari, berriz, bokal izatea egokitu zaie. Hauteskundeen ondotik, herriko eta Nafarroako ipar-mendebaldeko emaitza guztiak ezagutzeko aukera eskainiko du TTIPI-TTAPA aldzkariak eta Xorroxin irratia osatzen duten *erran.eus* atariak.

Moldaketak egin dituzte herriko hainbat txokotan

Udalak, azken aste hauetan, herriko hainbat txokotan moldatze-lanak egin ditu. Labaderoan eta plazan aritu ziren apiril hasieran eta horko egitekoak bukatu ondotik, zubian zeuden zuloak estaltzeari ekin zieten. Azken lan horiek egiteko eta zementua behar bezala idortzeko kotxeei pasabidea itxi behar izan zieten apirilaren 12an, joan den ostiralean. Herritarrek horren berri izateko eta eragozpenak saihesteko bando bidez jaso zuten itxiera eta irekiera ordutegia.

21. Korrikak herritarrek klikatu ditu

Apirilaren 8an Korrikak herria klikatu zuen. Argazkian ageri den taldeak, eguraldiari aurre egin eta lasterketan parte hartu zuen. Ernesto Domingezek eta Olatz Baleztenak eraman zuten lekukoa.





Dendako artikuluen likidazioa

deskontu handiak



H. LOPEZ

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126

info@honestolopez.com

www.honestolopez.com

Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta

Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak

Zeramika eta bainugelakoaltzarien salmenta

MALERREKA



Apirilaren 6an Beintza-Labaienen egin zuten Malerreka Kantuz. ARANTXA ITURRALDE

Maiatzaren 4an Saldiasen eginen da Malerreka Kantuz

Beintza-Labaieni lekukoa hartuz, Saldiasen ariko dira kanta zaharrak kantatzen

TTIPI-TTAPA

Hilabetero-hilabetero egiten diren hitzorduek aitzinera segitzen dute eta hurrengo Malerreka Kantuz maiatzaren 4an Saldiasen eginen da, ohi bezala, 12:00etan.

Apirilekoa hilaren 6an Beintza-Labaienen egin zuten. Eguraldia lagun, plazatik abia-

tuta, labaiendarrak eta hurbildu ziren gainerakoak kantu zaharrak abesten ibili ziren Anjel Estanga akordeolariaren laguntzarekin. Ittur-ondo elkartean akitu zuten itzulia eta elkarteko bazkideek eta Udalak kantariei eskainitako ha-maiketakoarekin borobildu zuten goiza.



UTZITAKOIA

Beintza-labaiendarrak Korrikan

Ttapi-ttapa, ttapi-ttapa, Korrika! Beintza-labaiendarrak ere euskararen aldeko lasterketan ibili ziren apirilaren 8an. 981. kilometroa egokitu zitzaizen, eta lekukoa eskuetan hartuta, Zubieta eta Ezkurra arteko errepidean maldan gora ibili zen argazkiko kuadrilla.



Apirilaren 8an 15:00 aldera herritik pasatu zen Korrika. MATTIN LARRALDE

Euskararen aldeko lasterketan ibili dira elgorriagarrek

MATTIN LARRALDE ELGORRIAGA

Euskararen alde kliku eginez, elgorriagarrek ere ez zuten hutsik egin euskararen aldeko lasterketa haundian. Apirilaren 8an herritik bertatik pasatu zen Korrika eta herriak erositako kilometroaren lekukoa Luxiokeraman zuen, baita aski arin eraman ere.

Korrikaz gain, bertzelako hitzorduak ere izan dira azken aldian: gurasoak eta haurrak zuhaitzak landatzen ibili dira; herriko bestak antolatze bilerak ere egin da, nahiz eta hiru gazte eta hiru zinegotzi baino ez ziren agertu. Zorroilo Elkarteak, bere aldetik, urteroko sagardo besta egin du.



JAIONE ZABALO

Haur, gazte eta heldu Korrikan Ezkurran

Ezkurrako herritarrek herrian berean Korrikaren lekukoa eramateko ohorea izan zuten apirilaren 8an. Udalak erositako kilometroan jubilotekako kideek hartu zuten lekukoa eta hurrengo kilometroan Barranka jatetxeko hiru belaunaldiren eskuetan ibili zen. Ondotik denek merienda egin zuten.

Xabat Illarregik irabazi du Arantzan Eskolartekoa

Leitzarrarekin batera, txapeldunorde izan zen Ekhiñe Zapiain beratarak lortu du Euskal Herrikorako sailkatzea

TTIPI-TTAPA

Arantzako eskolan jokatu zen apirilaren 5ean Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, ehun entzuleren aitzinean. Hamabortz bertsolarik parte hartu zuten, eta iaz bezala, Xabat Illarregi leitzarra nagusitu zen. Bigarren Berako Ekhiñe Zapiain gelditu zen eta biak izanen dira ekainaren 8an Saran eginen den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan Nafarroa ordezkatu dutenak. Entzuleen saria, berri, Etxahun Azkarraga etxalartarrak eskuratu zuen.

Hamabortz bertsolari aritu ziren: Amaia Lasheras (Barañain), Ane Telletxea (Lesaka), Beñat Astiz (Barañain), Bittoiri Elizalde (Iruñea), Ekain Alegre (Altsasu), Ekhiñe Zapiain (Bera), Enma Murillo (Barañain), Etxahun Azkarraga (Etxalar), Idurre Villanueva (Barañain), Iratxe Muxika (Lesaka), Lide Arrieta (Iruñea), Olatz Bados (Altsasu), Uxue Mesa (Lesaka), Xabat Illarregi (Leitza) eta Zuhara Zaratiegi (Barañain). Josu Sanjurjo lesakarra aritu zen aurkezle eta gai-jartzaile lanetan eta Saioa



Arantzan aritu ziren bertsolariak. Etxahun Azkarraga etxalartarra falta da. NBE

Mitxelena, Amaia Telletxea eta Julen Zelaieta epaile lanetan.

Gai orokorrari bertso bat, lau oinak emanda bertze bat eta hitz bana emanda bertze bertso bat kantatu ondotik, lau bertsolari pasatu ziren bigarren fasera: Ekain Alegre, Ekhiñe Zapiain, Iratxe Muxika eta Xabat Illarregi. Bigarren fase honetan, zortziko ttikian eta koplatan aritu ziren lau

bertsolariak, eta bi sailkatu ziren buruz burukora, Zapiain eta Illarregi.

Azkenean, iaz bezala, Xabat Illarregik jantzi zuen txapela. Alaitz Rekondo, Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehen-dakariak paratu zion. Berak eta txapeldunordeak, Ekhiñe Zapiainek, Nafarroa ordezkatu dute ekainean Saran eginen den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan.

DONEZTEBEN neurria egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Juan Estanga eta Migel Baleztena txapelkun musean

Koro Lizaso eta Pedro Martinez izan ziren bigarren eta Migel eta Karmelo Lizasoain hirugarren

F. ETXEBERRIA

Herrrikako partiden ondotik, martxoaren 28an Donezteben erabaki ziren mus txapelketako irabazleak. 34 bikotelehiatu ziren, normalean baino bi bikote gehiago.

Lau lagun gehiago izaki, txapelketa bi zatitan banatzea erabaki zuten. Lehendabiziko fasean, lau bikote aritu ziren, 09:00etan hasita. Ondotik, bi bikote galtzaileak kanpoan geratu zirelarik, atsedean tiki bat egin eta ohiko antolaketa segitu zuten.

Horrela bada, pixkan-pixkan, bikote kopurua guttituz jardun zuten: lehen jokaldietan 32 bikoteetatik 16k lortu zuten aitzinera egitea; gero zortzi sailkatu ziren eta horietatik lau onenekin zuten aitzinera. Orduantxe erabaki ziren finalistak. Finala bukaeraino

ailegatu ziren bi bikoteen artean izan zen.

Aurtengo irabazleak

Goizean hasi zituzten partidak eta arratsaldean erabaki ziren irabazleak. Izan ere, azken lau bikoteek ez zuten bazkalaurretik jokatzeko denborarik izan.

Aurtengo txapelketa Juan Estangak eta Migel Baleztenak irabazi zuten eta Koro Lizaso eta Pedro Martinezen aurka jokatu zuten finala. Hirugarren Migel eta Karmelo Lizasoain anaia izan ziren; laugarren Martin Gamio eta Jose Urrutia.

AURTEN 34 BIKOTE ARITU DIRA MUS TXAPELKETAKO FINALEAN



Goian txapelkunak eta behean azpitxapelkunak. F. ETXEBERRIA

Sariak

Irabazleek txapel eta urdaiaz-piko bana jaso zituzten, Santamaria jatetxeak emandako bi botila ardorekin batera. Bigarrenen lau ardo botila eta

gazta bana; hirugarrenei hiru botila ardo eta gazta; eta laugarrenei bi botila ardo eta gazta bat eman zieten. Parte-hartzaile guztiek giro ederraz gozatu zuten.



F. ETXEBERRIA

102 lagunek ikasitakoa erakutsi dute

Elkarteko 102 kide Doneztebeko kiroldegian bildu ziren apirilaren 4an. Urtean zehar, Patxi Txokarro irakasleari esker, yoga saioetan eta Ana Tovarren gidaritzapean izan duten luzaketa-ikaslaroan ikasitakoa erakutsi zuten. Ordubeteko emanaldiaren ondotik, indarrak berrartzeko, mahaiaren bueltan bildu ziren.

Aizkolegiko jauregia zaharberitzeko bidea ireki dute

Proiektua idazteko eskatuko du Nafarroako Gobernuak, martxoaren 27an Bertizko Patronatuak egindako bileran jakinarazi zutenez



Bertizko Parkeko Patronatua, martxoaren 27ko bileraren ondotik. TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak aurten enkargatuko du Bertiz Jaureria Natur Parkeko Aizkolegi Jauregia zaharberitzeko proiektua idaztea. Parkearen Patronatuko kideak martxoaren 27an bildu ziren, Isabel Elizalde kontseilariaren lehen-dakaritzapean, eta horrela jakinarazi zieten. Bileran, 2018an egindako jarduera nagusiak errepasatu zituzten, 2019ko ekitaldirako aurreikusitakoak aurkeztearekin batera. Nafarroako Gobernuak 600.000 euro inguruko inbertsioa egitea aurreikusi du.

Proposamenean, estalkia berritzeko lanak eta hormak eta zutabeak konpontzeko lan zehatzak jasoko dira, egitura aldetik finkatze aldera; kanpoko zaharberitze-lanak ere agertu beharko dira. Horretarako, 100.000 euroko aurrekontua du. Horrez gain, iazko lanarekin jarraituz, eraikina kontserbatzeko larrialdiko jarduerak ere egiten jarraituko du, 40.000 bat euroekin.

Aurten, Bertizko erabilera publikorako diren azpiegitura nagusiak berrikusi eta eguneratuko dituzte. Modu horretan, Zabala Etxea aterpea egokituko da, jauregian gasolio-galdararen ordezkari biomasa-galdara jartzeko izapideak egiten hasiko dira, eta Parke Naturalaren web orrialdea berrituko da, besteak beste.

Natur Parkeak inventario bat ere egingen du Bertizko basoaren bilakaera aztertzeko, 2008. urtean egindako azkenarekin alderatze aldera.

Erakutsi eta probestu aukerak!

DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA

<p>10% DESKONTUA produktuetan</p> <p>Intzakardi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>	<p>10% DESKONTUA arropa guztietan</p> <p>Amezitia DONEZTEBE T. 948 45 16 70</p>	<p>10% DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigarutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>5% DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>10% DESKONTUA 100€tik gorako erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>
<p>5% DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>5% DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>	<p>5% DESKONTUA kosmetikan</p> <p>5% DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik</p> <p>Amezitia DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>10% DESKONTUA Skeyndor Eternal kremetan</p> <p>Eliza, 18 behe DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>
<p>10% DESKONTUA hamar saloko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behe DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	<p>10% DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	<p>10% DESKONTUA erioju eta bitxielan 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Amezitia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p>5% DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>
<p>10% DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 12 DONEZTEBE T. 948 45 01 13</p>	<p>5% DESKONTUA zakur eta katuen pentsuan</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>10% DESKONTUA 12€tik gorako erosketetan</p> <p>Elizagibela, 7 DONEZTEBE T. 676 40 57 61</p>	<p>10% DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>



IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 · Doneztebe
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALDEGAN IREKIA

B-KARO

Bimbalina

mayoral

Kiriki

tuc tuc

Moda gehigarria 2019

HAURRAK

Jolasean gozatzeko jantzi fresko, eder eta erosoak

Haur eta gaztetxoek jantzietan ezinbertzeko baldintza izaten da erosotasuna. Karrikan jolasean ibiltzeko urte sasoiak da eta horregatik kotoizko jantzi freskoak, lihozkoak, galtza motzak, soineko eta alkandorak ezinbertzekoak izaten dira.

Kolore biziak dituzte pil-pilean dauden jantziek; arrosa, horia, berdea eta turkesa eta estanpatu tropikalekin, tangoekin, marinela-marrekin edo loreekin apaindu dituzte, baita mezu dibertigarriekin ere.

Kolore biziak dituzten palmondoak, hostoak, flamenkoak eta loreak ikusiko ditugu bazter guztietan

Ez ahanzi osagarriak

Jantziari ukitu berezia emateko ezinbertzeko elementua izaten dira osagarriak. Mota guztietako apaingarriak dituzten buruko zintak, lepokoak, txapel dibertigarriak edota eguzkitako betaurrekoak aurkituko dituzue saltokietan.



Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA · T. 948 630 709

www.beolaetxea.com 



Udaberri-udaka
MODA BERRIA
DAGOENeko ZURE ESKURA



OSAGARRI, BITXI, BOLSA
eta OINETAKOETAN
aukera zabala

LURRINDEGIAN
sekulako
eskaintzak!!

HAUREN ARROPA
3-14 urte bitarteko
neurriak

Vilanova
accessories

b.young®

 CASUAL FRIDAY TAPES

TIFFOSI KIDS

Xti.

BLEND®

TIFFOSI



EMAKUMEZKOAK

Denboran gibelera egin, modan aitzinera joateko

Udaberrian azala kolore berriz janzten da eta aurten inoiz baino gehiago beteko da hori. Dena izanen baita zilegi kolore kontutan. Horia, berde-menda, arrosa, laranja, beixa eta marroia dira denboraldiko koloreak eta tonu bizi-biziak edo pastelak ikusi ahal izanen ditugu.

Hamaika aukera

Estanpatuei dagokienez, batzuk bueltan datoz eta bertzeak ez doaz: tantoak batetik, marinela-marrak bertzetik. Hori bai, estanpatu klasiko hauek biziberritu eta tamaina eta kolore berrietan topatuko ditugu. *Cowboy* estiloa ere moda-modan dago eta horri lotuta, *animal printa* eta *flekoak* ezin aipatu gabe utzi. Kate eta korapiloen irudiak, estanpatu nahasketa eta militarra ere tendentzia dira. Eta zer litzateke udaberria lorarik gabe? Aurtengoan ere lorez beteko dira soinekoak, alkandorak eta gonak.

Soineko luzea izanen da denboraldiko jantzi izarra: egunerokorako eta baita hitzordu berezietarako ere.

Denboran gibelera

Denboran gibelera egiteko aukera ere izanen dugu gure janzkeraren bidez. *Hippie* estiloko soineko luzeak eta material naturalekin egindako osagarriak (poltzak, belarritako handiak...) izanen ditugu aukeran. 80ko hamarkadarekin lotutako *working girl* tendentzia ere inoiz baino indartsuagoa da. Blazerra da horren ikurra, egoera guztietarako egokia eta funtzionala den txaketa. Kolore bakarreko janzkiak ere tendentzia dira, kolore bizi-bizia badute hobe.



Maite moda
arropa eta osagarriak

Maite Moda


T. 948 450 727
Kale Nagusia, 4 behea
DONEZTEBE

IPINGI

ARROPA eta OSAGARRIAK

OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK

Santiago 88 ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es
www.ipingi.es



Zatoz Venta Peiora moda ezagutzera

3 POMMES ABSORBA AMERICAN TOURISTER BENZI BELLOSTA MORLANS BIMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DESIGUAL DOCKERS EA7 EMPORIO ARMANI EASTPAK ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM IKKS JACKS&JONES KAPORAL LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEGO WEAR LE TEMPS DES CERISES LEVIS LEVIS KIDS LOLLIPOPS MANGO MILLET NAPAPIJRI NORTON ONLY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS VANS VERO MODA VIOLETA BY MANGO WRANGLER

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel.: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarina | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

VENTA PEIO
Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean



ESTETIKA



GIZONEZKOAK

SAIOA & GEMMA
Estilistak

Asteartea > 09:30-18:30
Asteazkena > 09:30-18:30
Osteguna > 09:30-19:00
Ostirala > 09:30-19:00
Larunbata > 08:30-14:00

Ordua eskatu behar da

Santiago 76 Elizondo · T 948 580 894

Errotik moztu edo mugarik gabe luzatzen utzi

Orrazkera aldatzerako orduan gakoa ausartzea izaten da. Denboraldi honetako joeren artean denetarik dugu: ilea errotik moztu nahi dutenek kopeta-ilearen luzerarekin jokatzeko duten orrazkerak topatuko dituzte; adatsa mugarik gabe luzatzen utzi nahi dutenek, berriz, testurekin jokatzeko hainbat aukera. Guraizeak lanean jarri ordez, ilea tindatzea nahiago dutenek ile-hori platinok, ukitu gorritzak, edozein koloreri argitasuna gehitzeko metxak... izanen dituzte aukeran.

Itxuraberrituta, indartsu datoz garai bateko janzkiak

Kirok arropa itxurako jantziak oraindik ere modan dauden arren, janzki formalagoek geroz eta zale gehiago dituzte. Aurrealde gurutzatua duten txaketak proposatzen dituzte diseinatzaileek, 90eko hamarkadako kutsua dutenak eta sorbalda zabalekoak. Galtzak ere ez dira hain estuak izanen eta orkatila ez da bistan eramanen. Alkandora marradunak ere modan daude baita jertse zabalak ere. Sua, ura, haizea eta lurra irudikatuz, kolore gorria, urdina, grisa eta marroia izanen dira nagusi.



ROBERTO VICENTTI
CERIMONIA
JAVIER CAÑAS
ETIEM
RAMON SANJURJO



Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN • T 943 612 626 • www.capelettimercheirun.com •



APIRILAK 20-21-22

DESIGUAL

SPECIAL DAYS

Desigual arropa eta osagarri guztietan
deskontu bereziak eta opariak!

BIOK

IBARDIN
DANTXARINEA
ARNEGI

Eskuz esku ibili da eskualdean euskararen lekukoa

Apirilaren 8an goizaldean ailegatu zen Korrika eskualdera eta arratsaldera bitarte, ehun kilometrotik goiti egin zituen. Haur, gazte zein helduek izan zuten goatzeko aukera.

TTIPI-TTAPA

Korrikarako zapatilak oinetan eta euskararen aldeko oihuak ezpainenetan. Halaxe ibili ziren eskualdeko ehunka herritar apirilaren 8an. Goizaldean, 03:00ak aldera Gipuzkoa aldetik Berara sartu zenean ailegatu zen Korrikaren lekukoa eskualdera. Lesakan, Igantzin eta Etxalarren pasa zituen ondorengo orduak, eta handik, estreinakoz Lizarietako lepoa zeharkatuta, Sarara joan ziren korrikalariak.

Gero Senperera jo zuen lasterketak eta Ezpeleta eta Ainhoan barna, Urdazubira, Dantxarinera, ailegatu zen. Xareta utzita, Baztanerako bidea hartu zuen eguerdian Korrikaren lekukoak. Amaiurtik Elbetera joan zen eta Elizondon peto moreak jantzita jendetza zegoen esperoan eguerdian.

Baztandik Bertizaranara jo zuen. Malerrekaren txanda izan zen segidan: Doneztebe eta Elgorriaga pasata, joare doinuak gehitu zitzaizkien furgonetako musika eta euskararen aldeko oihuei. Ituren, Zubietta eta Ezkurren barna, arratsaldeko seiak aldera ailegatu zen Leitza 21. Korrika. Leitza eta aresoarrek osatu zuten Uitziko gainera arteko aldapa eta handik, eskualdea utzita, Larraunera egin zuen salto Korrikak.

Tartean, irribarre zabalak, emozioak eragindako malkoren bat, euskararen aldeko hamaika aldarri. Haur, gazte eta helduak lekukoa eman ez elkarri. Euskararen alde Klika egin zuten 41 herri.



Irudi ederrak utzi ditu Korrikak eskualdean. UTZITAKO ARGAZKIAK


Ekitaldia

Bera



Apirilak 22
19:00 · Kultur Etxea

Bel Pozueta



**ERA
BA
KI.**
Para
avanzar

ehbildu



Leitzako Udaletxean egin zuten agerraldia. UEMA

UEMAk bisitariak euskararekiko duten jarrera aztertu du

Inkesta bete dutenen %85ak eskertu du kalean euskara entzutea edo errotuluak euskaraz ikustea

JM BARRIOLA

Turismoak gora egin duen hainbat udalerrri euskaldunetan, bisitariak euskararekiko duten ikuspegia aztertu du UEMA inkesten bidez. Leitzan izan da azterketa egin duten herrietako bat, Zumaia eta Bermeorekin batera, eta jasotako erantzunetan joera argia ikusten da: bisitariak guztiek eskertu egiten dute kalean euskara ikustea edo entzutea, eta askok nahita hautatzen du udalerrri euskaldunetara etortzea, euskararekin topo egiteko.

Apirilaren 3an, Udaletxean egindako agerraldian eman zituzten aditzera bildutako emaitzak, UEMAren koordinatzaile Miren Seguroiak, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzako Mikel Urdangarinek, eta Leitzan, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzuko Kristina Urrutiak.

722 galdetegi

Leitzan, Bermeon eta Zumaian egin dizkiete inkestak bisitariari: 722 galdetegi bildu dituzte denera eta hainbat lekutan erdarak nabarmentzeko eta

euskara ezkutatzeko joera sumatzen den arren, datuek nabarmen erakusten dute bisitariak eskertu egiten dutela euskararekin topo egitea. Inkesta egin dutenen %93k adierazi du ez dutela arazorik izan haiengana euskaraz jo dutenean. Gainera, multzo horretako %47k erantzun dute eskertu egiten dutela «tokian tokikoari balioa ematea». Hizkuntza paisaiari dagokionez, bisitari gehienek (%85) eskertu egiten dute eta ondo konpondu dira errotuluak euskara hutsean topatu dituztenean.

Euskara: amua

Azaldu zuten bezala, azterketa honek agerian utzi du «euskara amua» dela bisitariarentzat. Euskara bertara etortzeko faktore bereizgarria da bisitari askorentzat (bisitarien %31rentzat), eta ez da etortzeko oztopoa gainontzeko ia guztientzat, hortaz, «turismoak gora egin duen eta bisitariak ugaritu diren lekuetan euskara ezkutatzeko ez du zentzurik bizikidetzaren ikuspegitik, ezta negozioaren ikuspegitik ere».



E.IRAOLA

Jendetza euskararen alde korrika

Basakabin hartu zuten leitzarrek lekukoa eta eskuz esku, zazpi kilometro osatu zituzten aresoarrei Uitzirako bidean lekukoa eman arte. Haur, gazte zein helduak umore ederrean ibili ziren euskararen alde korrika egiten eta lasterketa ikustera ere jendetza bildu zen.



TTIPI-TTAPA

Xabat Illarregik irabazi du Eskolartekoa

Apirilaren 5ean Arantzan jokatu zen Nafarroako Eskolarteko Txapelketa. 15 bertsolarik parte hartu zuten, eta iaz bezala, leitzarra nagusitu zen. Bigarren Berako Ekhiñe Zapiain izan zen. Biak izanzen dira ekainaren 8an Saran egingen den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako Nafarroako ordezkariak.

Liburutegia lekuz aldatzeko aukera mahai ganean

Guraso Katolikoek Oialde aretoa eman dio Udalari baldintzapeko donazioan eta bertan kokatu liteke

JM BARRIOLA

Egungo liburutegiak dituen gabeziak ikusita, aspaldi hasi zen Udala liburutegia herriaren erdigunera ekartzeko izan zitezkeen aukerak aztertzen. Azaldu dutenez, «modernoak, erosoak eta herritik gertuago egonen den liburutegi proiektua» garatzea da asmoa eta horretarako kokapen berria ezinbestekoa da.

Herrian zeuden aukerak aztertu ondotik Guraso Katolikoek Elkarteari Oialde lokala eskatzea erabaki zuten eta otsailean egindako batzarrean «aho batez onartu zuen elkarteak lokala baldintzapeko donazioan ematea».

Hurrengo pausoak eman aurretik, dirulaguntza eskaerak egiteko asmoa azaldu du Udalak: «inbertsio handiak egin beharko direnez, PILEko



Egungo liburutegia. ARTXIBOKOA

deialdietan dirulaguntza eskaerak egiten ditugu. Guraso Katolikoek Elkarteak ez bezala, Udalak deialdi horretara aurkezteko aukera izanen du».

Liburutegi berriak hainbat espazio lokal berean biltzea da asmoa: «haurrek etxerako lanak egiteko txokoak, isiltasunean ikasteko gelak, liburu edo prentsa irakurketarako espazio bereziak edo ordenagailu gunea» banatu nahi dituzte.

Udalak herri-lanetan aritzeko bi langile kontratatuko ditu

JM BARRIOLA

Udalak balioanitzeko bi langile kontratatuko ditu, batez ere mantentze eta garbiketa lanak egiteko. Sei hilabeteko kontratua izanen da, lanaldi osoan eta kontratuaren hasiera maiatzaren 15ean izatea aurreikusita dago. Interesa dutenek eskaera udal bulegoan aurkeztu beharko dute apirilaren 23ko 12:00ak baino lehen.

Eskola ziurtagiria (LOGSE aurrekoa) edo baliokidea aurkeztu beharko dituzte eta gidatzeko baimena izan eta

euskararen ezagutza ezinbestekoa izanen da. Gainera, lan deialdira aurkeztu nahi dutenek langabezian egon eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana egon beharko dute.

Euskara proba apirilaren 29an izanen da, proba teorikoa maiatzaren 3an eta proba praktikoa maiatzaren 7an.

Postuarekin erlazionaturiko formazioa eta esperientzia ere neurtuko dituzte eta lehen tasuna izanen dute urtebete lehenagotik langabezian daudenek.



TXISTULARI.EUS

Leire Retegi aurten ere txapeldun

Martxoaren 30ean jokatu zen Hernanin 14.Txistulari Gazteen Lehiaketa eta 16 urte arteko txistularien artean, iazko garaipena errepikatuz, Leire Retegi Fernandez leitzarra suertatu zen garaile. 200 euro, oroigarria eta txapela izan zituen sarritzat. Azken urtea zuen txapelketan.



OIHANA ERBITI

Robotikaren eskutik Detroitera bidaiak

First Lego League txapelketan parte hartu du Haritz Azpiroz Erbitik Legotronic Beavers taldean. Nafarroako txapeldun izan dira eta Espainiako txapelketan bigarren. Horri esker, apirilaren 24tik 27ra Detroiten (AEBtan) jokatu den mundu mailako txapelketan ariko da leitzarra.

Hitzaldian transgenikoak baina pintxoetan ez

Aurreko aldizkarian aipatu genuen apirilaren 11n transgenikoei buruzko hitzaldia egiteko zutela eta segidan transgenikoekin egindako pintxoak banatuko zituztela. Baina ez da hala, bertako produktuak erabili behar zituzten. Barkatu eragozpenak.

Elikadura osasuntsuari buruz hitzaldia maiatzean

Maiatzaren 2an, 17:00etan Erleta eskolako jangelan, *Elikadura osasuntsuan hezitzea, gure ardura!* hitzaldia eskainiko dute Mikel Zabaleta alkateak, Edurne Lekunberri Donibaneko haur eskolako zuzendariak eta Amaia Sagastibeltza pediatrik. LeitzEko antolatuko du saioa.



10 edo 25 kilometroko ibilbidea izanen da aukeran.

Goizutrail lasterketa maiatzaren 11n egingen da

Izen-ematea zabalik da www.herrikrosa.eus atarian. Ibilbide luzea egiteko 20 euro eta laburrerako 15 ordaindu beharko da

TTIPI-TTAPA

Mendizaleentzako Goizutrail lasterketaren VI. edizioa izanen da maiatzaren 11n, larunbatean.

Ibilbide luzea, laburra eta bikoteka aukeran

Aurten hiru aukera eskaini dituzte: ibilbide motza (hamar kilometrokoa) eta luzea (hogeita bost kilometrokoa) ez ezik, bikoteka egiteko aukera eskainiko dute. Azken hori aukeratzen duten bikoteei dagokionez, partaide batek 10 kilometro egingen ditu laster; eta bertzeak 15 kilometro.

Izen-ematea

Izen-ematea zabalik da dagoeneko eta www.herrikrosa.eus atariaren bitartez egin daiteke.

25 kilometroko ibilbidea egiteko 20 euro; hamar kilometrokoa egiteko 15; eta bikoteka parte hartzeko 40 ordaindu beharko dituzte; egunean bertan izena ematen dutenen kasuan, berriz, bost euro gehiago. Bestalde, goizuetarrek %5eko deskontua izanen dute.

Korrikalarietarako lasterketa egunean dortsalak plazan hartu beharko dituzte.

Unai Miranda izanen da EH Bilduren alkategaia

Martxoaren 30eko herri batzarrean, maiatzaren 26ko hauteskundera begira, EH Bilduk Goizuetako alkategaia Unai Miranda izanen dela iragarri zuen. Batzarrera joan zirenek herri-programaren proposamena entzuteko aukera izan zuten.

Tifanitxo eraikina moldatzeko 50.000 euro jasoko dituzte

Cederna Garalur elkarteak milioi bat euro inbertituko ditu Nafarroako Mendialdean tokiko 29 proiektutan. Horien artean, Udalaren eskariari erantzunez, herriko Tifanitxo eraikin publikoaren moldatze-lanetarako 50.000 euroko diru-laguntza emanen du.

Eskolen arteko topaketa maiatzaren 25ean

Urtero bezala, Goizueta, Areso eta Aranoko guraso eta haurren topaketa egingen dute. XX. edizioa izanen da eta aldi honetan Goizuetan zehaztu du hitzordua, maiatzaren 25ean, azken larunbatean. Egitaraua antolatzeke arduraren herritarra da aurten.

'Helpbidea' kodea izanen dute sakabanatutako etxebizitzek

TTIPI-TTAPA LEITZALDEA/URUMEA Arano, Areso, Leitza eta Goizuetako Udalak, Nafarroako Gobernuarekin eta Tracasa enpresa publikoarekin elkarlanean aritu dira herrigunetik kanpo dauden etxebizitzak identifikatzeko modu egoki baten bila. Larrialdi egoeretan azkar lan egin behar izaten da eta horretarako, larrialdi zerbitzuei ahalik eta informaziorik zehatzena ematea ezinbestekoa izaten da. Orain artean, behin baino gehiagotan ibili izan dira suhiltzaile edo ambulanziaz baserri edo etxebizitzak ezin aurkituz, horrek eragiten dituen kalte material edota pertsonalekin. Hori ikusita, etxebizitza bakoitzarentzat *Helpbidea* izeneko identifikatzaile bat sortzea adostu dute, hau da, etxebizitzei NAN zenbaki baten antzeko kode bat jartzea. *Helpbidea* identifikatzailea finkoa izanen da, ez da aldatuko eta larrialdi zerbitzuek ezagutuko dute.

Kodeak agerian

Identifikazio lana eginga dute dagoeneko eta etxebizitza bakoitzari dagokion kodea eman diote. Kode hori ageriko toki batean jartzea izanen da hurrengo pausoa. Horretarako, *Helpbidea* kodea daramaten plakak egin dituzte Udalek, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Datozen hilabeteetan banatuko dituzte plaka hauek eta Udal bakoitzak ezarriko dituen irizpideen arabera ageriko toki batean jarri beharko dira.

Aurrerantzean, herritarrek 112ra deitzen dutenean kode hau jakinarazteko ohitura hartu beharko dute. Kodea gertukoei ere jakinaraztea gomendatu dute, larrialdia pairatzen ari den horren ordeztu behar balute.

Haur, gazte eta helduek Korrika egin dute

Goizuetarrek Korrikan parte hartu dute. Aurten herritik pasatu ez denez, argazkian ikusten den lagun-taldea Basakabin bildu zen laster egiteko. Haur, gazte eta helduek euskararen aldeko klika egin dute.



Ikasleentzako dirulaguntzak onartu ditu Udalak

2018an egindako ikastaroak hartuko dira kontuan eta gehienez ere 100 euroko laguntza izango da ikasleko

TTIPI-TTAPA

Heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzen laguntzeko dirulaguntzak ematea erabaki du Udalak. 2018an egindako ikastaroak hartuko dira kontuan, egiaztatzen den gastuaren %50 hartuko dute bere gain eta gehienez ere 100 euroko laguntza izango da ikasleko eta urteko.

Baldintzak

Hamasei urte bitarteko gazte eta haurrentzako izango dira laguntzak eta Areson erroldatuak egon beharko dute, gu-

txienez urtebeteko antzintasunarekin. Eskaera egiteko orduan gastua egiaztu egin beharko dute eta horretarako ordainagiriak edo antzerako agiriak aurkeztu beharko dira. Kirol jarduerari dagokienez, ikastaro ez lehiakorrek hartuko dira kontuan, adibidez, igeriketa ikastaroak.

Interesa dutenek apirilaren 17a baino lehen egin beharko dute idatzizko eskaera udal idazkaritzan.

Pasa den urtean 1.500 euro bideratu zituen Udalak hezkuntzako gastuetarako.



JAIONE OLAZABAL

Elkarlanean mendiak biziberritzen

Udaberrian sartu orduko, aitzurrak eskuetan, mendirako bidea egin zuten haur eta gurasoek. Guraso Elkarteak antolatuta, zuhaitz landaketa egin zuten martxoaren 28an eta ehun haritz inguru landatu zituzten Urteagako parajeetan. Lanean aritu ondotik arratsaldekoa ere egin zuten.



FOTOTUR

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko aukera zabalik

Herritarrek maiatzaren 1era arte izango dute ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko aukera. Hortik aurrera gainkargua gehituko zaie; maiatzaren 2tik maiatzaren 21era arte %5ekoa izango da gainkargua eta maiatzaren 22tik aurrera %20ekoa.

Udalak herri-lanetarako langile bat kontratatuko du

Apirilaren bukaeran hasi eta sei hilabeterako izango da lanpostua, %75eko lanaldiarekin. Hautapropa apirilaren 16an egiteko asmoa dute eta bertara aurkeztu nahi dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon beharko dute.

Adur Etxezarreta Espainiako txapeldun

Urrezko domina jantzi berri du Supererraldoi modalitatean. Denboraldi bikaina osatu du eta pozik agertu da: «emaitza honekin denboraldiari bukaera polita eman diot, hainbat podium egin ditut Nazioarteko Eski Federazioak antolatutako probetan eta rankingean ere hobera egin dut».

Aresoarrek ere izan dute beren zatitxoa Korrikan

Herritik pasa ez bazen ere, aresoarrek izan zuten Korrikako ibilbidean beren zatitxoa: Leitzako 1.000 eta 1.001 kilometroak. Euskararen lekukoa elkarri emanez, gustura ibili ziren haur, gazte eta helduak.



E. IRAOLA

Ikasketa akaberako lanen dirulaguntzak esleitu ditu Udalak

Fermin Larralde elizondoarrak eta Nerea Etxenike arizkundarrak 500 euroko saria jasoko dute

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Udalak bailarekin zerikusia duten ikasketak akaberako lanak eta proiektuak diruz laguntzeko dirulaguntza deialdia egin du. Aurten bi proiektu aurkeztu dira deialdirat eta epaimahaiak ontako emanik, bekaren onuradurak Fermin Larralde Kordoba elizondoarra eta Nerea Etxenike Errandonea arizkundarra izanen dira. Lehena historia graduko ikaslea da eta bigarrena turismo gradukoa. Lanak aurkeztu ondotik, bakoitzak 500 euroko saria jasoko du.

Nekazaritza eta turismoa aztertzen duten lanak

Fermin Larralde *Baztango nekazaritza XVI. mendetik XVIII. menderat* ikerketa gaia aurkeztu du, aro modernoan

egiten zen nekazaritza aztertzeko. Aurkezturiko proiektuaren arabera Hego Euskal Herriko eta Nafarroako mendialdeko garai horretako nekazaritzaren argazki orokorra egingen du, ondotik Baztangoan zentratzeko.

Bertzalde, Nerea Etxenikeren lanak galdera honi erantzunen dio: Baztango turismoa iraunkorra al da?. Turismo iraunkorraren oinarria alderdi ekonomiko, sozial eta ingurumen aldekoen arteko oreka denez, lan honetan, turismo iraunkorra definitzeaz gain zutabe horietako bakoitzaren bailarako egoera aztertuko du Arizkungo ikasleak.

Ikasketa akaberako proiektu hauek diruz laguntzeko erabakia apirilaren 5eko Tokiko Gobernu Batzordean hartu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Herri Kirol Jokoak Erratzun

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako hirugarren jardunaldia Erratzun jokatu zuten martxoaren 31n. 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoak, batzuk proba konbinatuan eta bertzeak sokatiran aritu ziren. Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin antolatzen du txapelketa.

Ipuin kontaketa dramatizatua liburutegian

Liburuaren Egunaren harira, Urko Redondo eta Ainara Gurru txagak *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulakoz* ipuin kontaketa dramatizatua eskainiko dute apirilaren 30ean, asteartean 17:30ean Baztango liburutegi publikoan, 6-8 urteko haurrei zuzenduta.

Bertako produktuen feria Elizondon Aste Santuan

Baztango Artisauak elkartearen eskutik, bertako produktuen feria izanen da Aste Santuan Elizondoko plazan. Zehazki, apirilaren 19an eta 20an, ortziralde eta larunbatean egun osoan eta igandean 11:00etatik 14:00etara izanen dira plazan.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

LH zentroa egiteko lurren kalifikazioa aldatu du Udalak

Ornoz-Mugairiko bidezainen gibekeko aldeko 27.000 metro koadro dira, eskualdeko lanbide lanbide zentrorako

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko lanbide eskola berria egin ahal izateko Oronoz-Mugairiko bidezainen gibekeko aldeko lurren kalifikazio aldaketari behin-behineko onespina eman dio Udalak ahozatez. Martxoaren 28an egindako osoko bilkuran 27.000 metro koadro hartzen duten UE-3, UE-5 eta AR-1 lursailak zerbitzu publikoetarako zuzkidura-lurzoru gisa, hau da, dotaziotarako kalifikatzea onartu zuen, orain artio kontsolidatu gabeko hiri-lurrak eta lurzoru urbanizagarriak baitziren. Orain, Nafarroako Gobernuari dago- kio behin-betiko onespina ematea, horrela, 2018ko martxoan hasitako espedientea akituz.

Ezaugarriak

Martxoaren 28ko batzarrean onartutako txostenean aipatzen denez eskola berriak eraikitako bolumenaren erdia behe-itiko solairua gehi bi izanen du eta gainerakoan behe-itiko gehi bat. Lehenengo kasuan teilatuaren hegaler



Eremu honetan eginen da ikastetxea.

gehienez hamar metroko altuera izanen du eta bigarrenazazpi. Bertzalde, teilatuak maldan izanen ditu, bertako ohiko ereduari jarraikiz.

Gainerakoan, 27.000 metro koadroko lurzati horren baitan garraio publiko aldatzeko tokia egitea ere aurreikusita da, hau da, interkanbiatzailea.

Aipatzekoa da lurren jabea Nafarroako Gobernu dela, nahiz usufuktua artzapezpi-kuarena izan aspaldiko urteetan. Hortaz, eskualdeko lanbide heziketa eskola berriaren proiektuarekin aitzinerat egiteko, lurren kalifikazio aldaketa onartuta artzapezpi-kuari lur horien usufuktu eskubidea desjabetu beharko dio Gobernuak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Konpost banaketa egin dute

Urtean zehar auzo konposta guneetatik atera eta bertatik jendeak eraman ez duen konposta banatu zuten Irurritako Loizuko belagian. 40 lagun inguru hurbildu ziren. 500 kilo pasa konpost bahetu banatu zen etxeko loreetarako eta zetabetik pasatu gabeko 1.000 kilo, baratzeetarako.



UTZITAKO ARGAZKIA

BRTren argazki lehiaketan saritua

Menditarrak BRT errugbi taldeak denboraldi honetan deitutako argazki lehiaketak badu irabazlea: Pello San Millan. Baztango produktuen lote bat eskuratu du saritizat. Aurtengoan 'Lohia' zen argazkietarako gaia eta argazki ikusgarri batekin irabazi du arizkundarrak.



Pintura-lanak kanpokoak eta barnekoak
Zolak, zatiketak eta beste lan txikiak jartzea
Denden diseinua eta dekorazioa

TINTALANAK
RAMUNTZO ERRANDONEA

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!

 Zugarramurdi
 (+33) 06 03 347 076
 tintalanak@gmail.com
 www.tintalanak.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Elena Zabaleta da Ikastolen Elkarteko presidente berria

Oronoztarrak Mikel Asiainen lekua hartu du Nafarroako Ikastolen Elkartean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Ikastolen Elkartean (NIE) nartxoaren 25ean egindako batzarrean, aho batez izendatu zuten erakundearen lehendakari Elena Zabaleta Andresena oronoztarra, karguan Mikel Asiain ordezkatzuz. NIEko hamahirugarren lehendakaria izanen da eta Julio Altadillek, Ramón Mintegik, Patxi Arzek, Jesús Bueno Asínek, Txomin Izkok, Gorka Nicuesak, Fermin Alzugarai lesakarrak, Aingeru Epaltzak, Xabier Azanzak, Izaskun Arratibelek, Pello Irujok eta Mikel Asiainek bete zuten kargua bere gain hartu du.

Elena Zabaleta Enpresa Zientzietan diplomatua eta Enpresaren administrazioa eta kudeaketan lizentziatua da. Baztan Ikastolako lehendakari izan da (2013-2015). Gaur egun, Guraso Elkarteko hurreman instituzionaletarako arduraduna eta Baztan Udal Patronatuko kide, baita NIEko Nafarroa Oinezeko batzordeko kide ere.

Izendapenaren ondorengo bere lehen hitzetan adierazi



Mikel Asiain eta Elena Zabaleta.

zuenez, bere asmoa lan eta berrikuntza ildoari jarraipena ematea da, aitzineko lehendakariak egin zuten moduan: «Ikastoletatik ahalegin berezia egiten jarraituko dugu, bategatik, irakasleen etengabeko formazioan, eta, bestetik, familien inplikazioan eta parte-hartzean, guztien artean helburu nagusitzat ikasleen kompetentzia pertsonal eta sozialaren garapena dituzten hezkuntza zentroak lortzeko; hala nola, egiten ikastea kompetentzia; hizkuntza kompetentziak, euskara ardatz zentrala izanik, eleaniztasuna sustatuz... Europako arauak planteatzen dutenarekin bat eginez», aipatu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Heriotzik gabeko I. erbi ehiza txapelketa

Baztango Ehiza Elkarteak antolatuta, Ezkozkolepo eta Itzulegi inguruan, Baztango Heriotzik gabeko I. erbi txakur lehiaketa jokatu zen apirilaren 6an. Lesakako Ibai Mujika eta Alfontso Mujika suertatu ziren irabazle. Igantziko Marcial Loiarte, Gipuzkoako eta Lapurdiko ehiztariak ere aritu ziren.

Baztango XXI. Ahari Lehiaketa erabakiko da apirilaren 26ko Udaberriko Ferian

TTIPI-TTAPA

Aziendak, artisau lanak eta etxeko produktuak etxetik edo baserrietik karrikara ateratzeko, apirilean Baztanen egiten den hitzordu nagusia gainean da. Apirilaren 26an, ortziraletan, egiten da Udaberriko Feria Elizondon, Baztango Udalak eta Cederna-Garalur erakundeak antolatuta.

Goizez azia eta artisau feria, ahari lehiaketaren 21. edizioa, musikariak, dantzariak eta bertze zenbait ekitaldi izanen dira. Ardi gasnaren mozketak ekitaldia, bertako pro-

duktuen dastaketa eta sari-banaketak ere egiten dituzte eguerdi partean.

Oinarrietan aipatzen denez, Baztango latxa arrazako buruak parte hartzen ahal dute eta sariak bi ataletan banatuko dira: hiru mutur gorriak eta bertze hiru mutur beltzenak. Bi kasuetan, lehenengo saria, kaiku bat eta 75 euro; bigarren saria, 50 euro eta hirugarren saria, 30 euro. Iaz bezala, urtea bete ez duten antxu ahariak ere sarituko dituzte, mutur gorrietan nahiz mutur beltzetan.

ORBELA
SENDERSMOA ATERPENTEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com

www.orbela-beintza.com

744 484 361

ttipi-ttapa

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Apirilaren 1eko Batzar Orokorrean izan ziren lehen aldiz alkate eta juntero berriak. JUAN MARI ONDIKOL

Batzar Orokorrean ongietorrien eta agurren txanda

Erregerenako epaiaren inguruko eztabaida sortu zen apirilaren 1eko bileran, udal hauteskudeen aitzinetik izan den azkenean

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 1ean ospatu zen Baztango Batzar Orokorraren urteko bigarren bilera. Herrietako zazpi alkate berrirendako eta kuarteletako juntero eta mendi komisionatu berriendako lehenbizikoa izan zen. Hurrengo bilera uztailean izanen denez, zenbait udal ordezkariendako azkena ere izan zen, maiatzaren 26ko udal hauteskudeen ondotik, guti edo aunitz, udal korporazioa aldatu eginen baita. Beraz, ongietorrien eta agurren batzarra izan zen.

Hamabortz herrietako alkateetatik zazpi berriak dira eta lehen aldiz parte hartu zuten Batzar Orokorrean: Arizkunen Francisco Lakar, Azpilkuetan Luis Azkarraga, Elbeten Xabier Urreaga, Zigan Idoia Arrieta; Amaiurren Joxe Urrutia, Iruiritan Oihane Prim eta Erratzun,

Joxe Itoiz. Kuarteletako juntero eta mendi komisionatu berriak ere lehen aldiz izan ziren Batzar Orokorrean.

Erregerenako epaia

Ohiko gaien ondotik, galdera eta eskarien txandan, Erregerenari buruz Auzitegi Gorenak emandako epaiaz zergatik ez zen solastatu galdetu zuen Begoña Sanzberrok, UPNko zinegotziak.

UPNren ustez, «agintaldi osoan Balleko Etxearen kontra emandako epairik garrantzitsuena da, Erregerena inguruko 576,27 hektarea Eugiko

**ERREGERENAKO
526 HEKTAREA
TRASPASATU
BEHARKO DIRA**

kontzejuari eta Esteribarri traspasatzera behartzen baitu, eta epai hori gorde egin dio Joseba Otondo alkateak bai udal batzarrari, baita Batzar Orokorrari ere». UPNk dioenez, epaia martxoaren 28ko udal batzarra baino lehen ailegatu baldin bazen ere, alkateak ez zion horren berririk eman batzarrari. UPNren susmoa da «interes politiko eta partidistagatik egin zuela hori, hauteskudeei begira».

Joseba Otondo alkateak eta Batzar Orokorreko presidentek erantzun zuenez, «Baztango UPNk bazuen Erregerenako epaiaren berri, martxoaren 22an egin zen Ogasun batzordean afera aztertu baitzen, epaiketaren faktura pasatu zutenean. UPNko zinegotzi batek epaiaren kopia bat eskatu eta eman zitzaion». Hortaz, «UPNren barrenean komunikaziorik ez izatea ez da EHBilduren ardura», aipatu zuen Otondok.

EHBilduk ohar bidez zioenez, «kontu arrunta da epaiak berri informazio batzordean ematea eta ez udal batzarrean, prezski horretarako baitaude informazio batzordeak. Hortaz, informazioa gorde dela erratea, gezurra bertzerik ez da».



Joseba Otondo eta Manuel Arellano.

'Ez da VIP gunea, behar bat da' kanpaina abiatu da Baztanen ere

TTIPI-TTAPA

Nafarroako bertze zenbait hiritan bezala, Baztango Udalak ere bat egin du ezintasun fisikoa eta organikoak dituzten pertsonen elkarteak biltzen dituen Cocemfe federazioak bultzatutako *Ez da VIP gunea, behar bat baizik* kanpainarekin. Ezintasuna duten pertsonen gordetako aparkalekuen erabilera egokiari buruz sentsibilizatzeko kanpainak da.

Joseba Otondo alkateak eta Nafarroako Cocemfe elkartearen presidentea den Manuel Arellanok aurkeztu zuten kanpaina. Ezinduei bideratutako hiru aparkalekutan, ohiko seinalizazioaren ondoan, metro bateko diametroa duten komiki biñetaren itxurako biniloak jarriko dituzte. Bertan, ez dela VIP eremua, errespetatu beharreko behar bat baizik ageri da, lurreko seinalean ageri den gurgildun aulkia erabiltzaileak erranen baluke bezala.

Gainera, hemendik aitzinean, horrelako lekuetan aparatuak erabiltzeko ibilgailuei txartel handi batzuk jarriko zaizkie, horrelakoak behar dituzten pertsonen testigantzekin eta horiek gaizki erabiltzeak sortzen dizkien eragozpenak azalduz.

Oroitarriaren estreinaldia apirilaren 22an

Egun berean Idazleen Biltzarraren 36. edizioa egingen da kiroldegian

TTIPI-TTAPA

Egun berezia izanen da apirilaren 22a. Alde batetik, egun horretan eta biharamunean, 36. edizioa beteko duen Idazleen Biltzarra egingen da, eta bertzetik, oroitarri bat estreinatuko dute.

Lapurdi 1609 elkartearen eta Herriko Etxearen arteko elkarlanaren emaitza da *1813-1814. Euskal Herria Napoleonen tropengatik suntsitua* izenburupean estreinatuko duten oroitarria. 12:30ean Suharriaga parkean inauguratuko dute eta ekitaldian Zazpiak bat dantza taldeko kideek, Anje Duhalde eta bertsoarietako parte hartuko dute.

Idazleen Biltzarra

Egun berean, Idazleen Biltzarra egingen da eta bertze urte batez, euskarazko literaturaren erakustoki bilakatuko da kiroldegia. Argialetxe eta liburu-denden guneez gain, haur literaturari eskainitako txokoa ere prestatu dute eta sartzea urrikeri izanen da.

09:00etan irekiko dituzte azokako atea eta 09:30ean

lehenbiziko mintzaldia hasiko da: *XXI. mendeko euskal literatura* izanen du hizpide Itziar Madina idazle, irakasle eta euskal ikasketetan doktorea.

11:00etan Euskal Idazleen Elkartearen aurkezpena egingen dute. Garbiñe Ubeda elkarte-ko lehendakariak taldea zergatik sortu zuten azalduko du, baita zer eskaintzen duten ere. Peru Iparragirre poeta eta literatur kritikaria idazle izateaz ariko da. 11:45ean trukerako aukera izanen da.

12:45ean antolatzaileek bazkaria eskainiko dute eta 14:30ean Kiribil Konpainiaren eskutik, literatura, musika eta olerkia uztartzen dituen *Odi-sea* ikusgarria izanen da.

15:30ean, *Irakurketa euskaraz nola sustatu?* mahai-ingurua egingen dute. Pantxika Maitiak gidatuko du eta Lierri Arizaga kazetaria eta irakurketa talde baten sortzaileak, Maider Bedaxagar artista eta liburuzainak, Peio D'Uhalt editoreak, Lucien Etxezarreta idazle eta editoreak eta Gilles Riviere liburuzainak parte hartuko dute.

Kexu artean egin dute auzapezen bilkura

Protesta artean iragan zen martxoaren 23an Lur Berri gelan egin zen Ipar Euskal Herriko auzapezen bilkura. Olivier Dussopt estatu idazkaria Saran zela baliatuz, estatua zerbitzu publikoekin egiten ari den murrizketak salatuz zituzten kanpoan zein barnean bildutakoek

Isuna jarriko diete lan egiten ez duten ehiztariei

40 bat lagun elkartu ziren apirilaren 7an egin zen ehiztarien biltzar nagusian. Nabarte lehendakariak sasoiari ongi joan dela kontatzeaz gain, iratzea pikatzerat eta postuen egiterat joaten ez diren ehiztariei hamar euroko isuna jarriko dietela adierazi zuen bilkuran.

Herritarrek klika egin dute euskararen alde

Argazkian ageri den Eñaut Berasategirekin batera, hainbat eta hainbat izan ziren apirilaren 8an euskararen alde Korrikan parte hartu zuten herritarrek. Lizaietako lepoan barna ailegatu zen Sarara Korrikaren lekukoa eta herritarren artean eskuz esku ibili zen.



Eñaut Berasategi. UTZITAKOIA

Beti Gazte elkartearen bilkura giro ederrean

Biltzar nagusia egin zuten hilaren 6an Beti Gazte elkarte-koek. Jeannot lehendakariak ongietorria eman zien bildutakoei eta Michel diruzainak kontuak positiboan eman dituztela azaldu zuen. 74 lagun bildu ziren bazkaltzeko eta kantari ere aritu ziren.



Erretretatuak bazkaltzen. GANEX



Aurten lehenbiziko aldiz taldekako lasterketa egin da. PIERRE EZCURRA

Ehun hirukote taldekako lasterketan eta ia 700 lasterkari banakakoan

TTIPI-TTAPA

Lasterkariz bete zen herria martxo hondarrean. Hilaren 30ean egindako taldekako lasterketan ehun hirukotek parte hartu zuten eta Jason Pointeau, May Cheung eta Jordain Pointeau osatua nagusitu zen. Biharamunean, 14. mendia lasterketa egin zen. 636 lagun

helmugaratu ziren eta Oier Ariznabarreta izan zen bizkorrena (01:55:46). Ondotik Sylvain Court (01:55:25) eta Iban Letamendi (02:00:40) sailkatu ziren. Emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitia (02:19:17), Maria Zorroza (02:23:54) eta Mayi Mujika (02:28:44) izan ziren lehenbiziko hirurak.

Antzerki emanaldiaz gozatu dute apirilaren 12an

Emanaldiaren ondotik, antzezleen esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten

MARIFA ETA KORO

Harremanak jubiloteka elkar-teak antolatuta, antzerki emanaldi berezia izan zen apirilaren 12an, joan den ortzira-lean, herriko Leorlaseko aretoan. Bizkaiko Oroimenak taldeak *La fiesta de la Madonna* lana eskaini zuen, egungo gizartean ohikoa den adinekoen bakardadea ardatz hartuta sortutako lana.

Gai serioa izanagatik, umore ukitua ere badu. Antzezlanak gaiari buruz pentsaraztea du helburu eta eragin horixe izan zuen ikusleengan.



Adinekoen bakardadea du gai.

ONCEk lagunduta, ikusmen arazoak dituzten hogei laguneko aktore-taldea izan zen bertan eta emanaldiaren ondotik, beraien esperentziaz solasteko aukera izan zuten.



Dantxarinear hartu zuten lekukoa herritarrek. MARIFA ETA KORO

Korrikaren bueltan ekitaldiak izan dituzte herrian

MARIFA ETA KORO

Herritarrek Korrikarekin bat egin dute. Dantxarinear hartu zuten kilometroa eta euskararen aldeko pausoak eman zituzten. Apirilaren 13an, larunbatean, berriz, Korrika kulturalaren harira, Paradisu fest izan zuten herrian. Egun osoko egitaraua prestatu zuten.

Goizean Zugarramurdi, Sara, Etxalar eta Urdazubiko taldeen artean bote-luze partidak jokatu zituzten. Gero, Ixtilarteko bordan bazkaldu zuten eta eguna finitzeko Paradisu-xokoan kontzertuak eskaini zituzten Makusai, Satelitik, Mugaldekoak Band eta Toomaxak taldeek.

Martxo hondarrean bertze sute tiki bat izan da

Martxoaren 30ean, larunbatean, bertze sute bat piztu zen herritik hurbil, Arleungo lepoan hain zuzen ere. Suhiltzaileak berehala agertu ziren, eta oren pare batez lanean aritu ondotik itzaltzea lortu zuten. Zorionez, suteak ez zuen kalte handirik eragin.



Arleungo lepoan piztu zen sutea.

Ibilaldi gidatuak eginen dituzte astelehenean herrian

MARIFA ETA KORO

Heldu den astelehenean, apirilaren 22an, *Zaporeak eta landa* goiburupean ibilaldi gidatuak eginen dituzte herrian. Gidariak lagundutako pottoka-buelta eta Etxelekua gasnategia ezagutzeko bisita egin nahi dutenek zortzi euro

ordaindu beharko dituzte; bisita gastronomikoa bakarrik egin nahi dutenek, berriz, 3 euro. Bata zein bertzea egin ahal izateko 24 ordu lehenago eman behar da izena 659 47 73 96 telefonora deituz edo info@orbela-beintza.com helbidera idatziz.

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralera 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

Cristaleria BIDASOA
 Tel. 943 61 30 63
 Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN info@cristaleriabidasoa.com

Apirilaren 28an Nafarroaren Eguna ospatuko dute

Basaizea Kultur Batasunak egun osorako ekitaldiak prestatu ditu eta bezperan musikaldia izanen da

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez hainbat euskaltzaleren topaleku bihurtuko da Baigorri apirilako azken igandean; 40 urte baino gehiagoko ibilbidea duen Baigorriko Basaizea Kultur Batasunak Nafarroaren Eguna antolatu du apirilaren 28an.

Gaineko plazan, 08:00etan askaria eskainiko dute eta horrez gain, merkatua izanen da. 11:00etan desfilea abiatuko da hainbat partaiderekin: Tuterako, Garaztarrak eta Luzaideko dantza taldeek, ziganteek Ezpela, Uztaritzeko eta Kuxkuxtu txarangaren laguntzarekin, gaiteroek, makilariak, Anhaizeko basaldunak, trikitilariak, Karmele eta Koldobikek eta bertsolariak parte hartuko dute.

Pentzean, berriz, 14:00etan bazkaria egingen dute eta Ezpela, Kuxkuxtu eta Uztaritze-

ko txarangak arduratuko dira mahai-ingurua girotzeaz. Herriko Etxearen aitzinean, bertalde, 13:30etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:00etara multil gazteak ariko dira.

Plazan, azkenik, 15:00etan Izaki gardenak taldea ariko da; 17:00etan Bashainarak taldeak dantza ikusgarria eskainiko du; 18:00etan Kiki Bordatxok hartuko du lekukoa eta 20:00etan Eskean Kristo taldeak kontzertua eskainiko du. 22:00etan Diabolo Kiwi taldearen txanda izanen da eta eguna borobiltzeko 23:30ean Holako Deluxerekin dantzaldia izanen da.

Apirilaren 27an, berriz, zine kontzertu berezia izanen da, Charlie Chaplinen zinemagile ospetsua sortu zela 130 urte bete direla eta denbora batez Baigorriin egon zela oroitzuz.



KORRIKA.EUS

Senpertarrak Korrikan

Apirilaren 8an herritik iragan zen Korrika eta aintz izan ziren parte hartu zuten herritarrak: Lapurdi 1609 elkarteak, Bertsularien lagunak, Senpereko eta Ibarungo komiteak, Egiakzi likoreak, Spuc kirolak, ikastetxeak, Herriko Etxea, Zirikolatzen dantza taldea, Senperen kantuz, Elirale konpainiak...



AINARA MAIA

21. Hatsaren Poesia Eguna Larraldean

Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorritako 30 bat olerkari bildu ziren apirilaren 7an Larraldea baserrian egin zen 21. Hatsaren Poesia Egunean. Han aurkeztu zuten 122 olerkarien hitzekin osatutako poesia liburua. Hainbat olerki adituz gozatzeko aukera ere izan zuten bildutakoek, tarteka musikaz lagunduta, eta egun osoan argazki erakusketa ikusgai izan zen.

Bertiz Natur Parkeko III. argazki lehiaketa abian da

Lanak ekainaren 5a arte aurkez daitezke eta 600 eta 300 euroko sariak emanen dituzte epaimahaiak eta bisitariak

TTIPI-TTAPA

Bertiz Natur Parkeko III. argazki lehiaketa abian da dagoeneko. Argazkilaritza zale-tasun duen edonork parte har dezake lehiaketan, adin mugarik gabe.

Bertizko Lorategi Historiko - Artistikoko kolorezko bizitza gaiari erantzunez, parte hartzen dutenek inguru ederrek sortzen dituzten giro bereziak adierazi beharko dituzte. Antolakuntzak lanak gordetzeko eskumena izanen du.


Parte-hartzaile bakoitzak berak egindako hiru lan aurkez ditzake, lehenagotik argitaratuak izan ez direnak. Formatu digitalean aurkeztu beharko dira (10Mb-eko gehienezko pisua eta 6Mb-ekoa gutxienekoa), jpg formatuan eta 200-300 pulgadako erresoluzioarekin.

Lanak parkean dagoen Turismo Bulegoan entregatu ahal izanen dira (CD, DVD edo pen-drive batean) asteleheneretik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etarara eta igandetan 10:00etatik 14:00etara edo e.retratubertiz@gmail.com helbide elektronikora bidaliz.

Lanen identifikazioa Nortasun Agiriaren bidez egingen da. Horrela bada, artxiboen izena NAN zenbakia eta izenburuak osatuko dute eta bertze orri batean eman beharreko datuak bilduko dira: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, telefonoa...

Sariak

Lanak bi kategorietan saritutako dira: epaimahaiak aukeratutako lanaren egileak 600



Argazkiak ikusgai paratuko dituzte.

euro jasoko ditu eta bisitariak aukeratutako argazkiaren jabeak, berriz, 300 euro.

Epaimahaia argazkilari profesionalak eta parkeko arduradunek osatuko dute. Aldez aurretik lanen aukeraketa egingen da eta 24 argazki geldituko dira epaimahai eta bisitarien bozketa-faserako. Horretarako, argazkiak erakusgai izanen dira denboraldi batez Lorategi Historiko-Artistikoko erakusketa-aretoan. DIN A 4 formatuan erakutsiko dira.

Sari-banaketa irailera Ate Irekien Egunean ospakizunean izanen da, Bertizko Natur Parkean. Saritua adin txikikoa izanez gero, heldu batek lagunduta joan beharko da.



ARGAZKIA ETA TESTUA: OLATZ MUTUBERRIA

Narbarteko pilotalekuaren inaugurazioa

Narbarteko plaza iaz berritu bazen ere, azken ukituak falta zituen. Dena akituta, martxoaren 30ean inauguratu zen. Apaizarem bedeinkapena eta dantzariaren aurrekuaren ondotik, pala partidaren Ismael Oteiza eta Dabid Albiasuk 35-34 irabazi zieten Ebaristo Telletxea eta Egoitz Gamiori.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikroipuin lehiaketan sarituak

Euskokultur Fundazioaren mikroipuin lehiaketan, LHn (D eredua), Berako Ricardo Baroja eskolako Eneko Etxeberria Osuak eskuratu du lehen saria, *Tximeletaren maitemintzea* lanarekin. Ikastetxe bereko Aimar Arandia Elizondok aipamena jaso du, *Arantzako istorioa (egizko istorioa)* lanarekin.

**OSPAKIZUNETARAKO
SALA
ALOKATZEN DUGU**

Gure lokala nahi duzun ospakizuna nahi duzun moduan antolatzeko aloka dezakezu: ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, familia bazkaria...

- 170 lagunentzako jangela
- Sukalde profesionala edo catering enprekin harremanetan jarriko dizugu
- Lo egiteko tokiak 15 pertsonendako

IKABURUA

T. (0034) 948 59 92 22 | (00 34) 690 755 875 | Urdazubi (lezeen ondoan)

www.ikaburua.com



Gizasemeen eta emakumeen podiuma, Ekaitza elkarteko ordezkariekin eta Lorea eta Aimar Zubietarekin. GURUTZE PIKABEA

Larralde eta Sola irabazle Arantzako Mendi Lasterketan

Berako korrikalariak marka berri bat ezarri zuen eta Xabier Zubieta Saria ere jaso zuen, 252 korrikalarik bukatu zuten lasterketaren hirugarren edizioan

TTIPI-TTAPA ARANTZA

Eguraldi ederra lagun, 252 lagunek egin zuten martxoko hondarreko egunean egin zen Arantzako 20 kilometroko mendi lasterketa. Guztietan bizkorrena Joseba Larralde beratarra izan zen. 01:38:44ko denbora behar izan zuen ibilbidea osatzeko. Hondarribiko Joxe Amunarriz bigarren helmugaratu zen, 01:39:07ko denbora eginda. Hirugarren Iñaki Mihura arraioztarra izan zen, 01:42:09ko denbora eginez.

Guztira 27 emakumezko egin zuten lasterketa eta guztietan bizkorrena Uztarrozko Laura Sola izan zen. 02:01:40ko denbora egin zuen. Alizia Olazabal irundarra bigarren izan zen eta Irati Larrañaga usurbildarra hirugarren. Ez zen eskualdeko emakumezko aurkeztu.

Gizonezkoek zein emakumezkoek, Dabid Iturria eta Koldobike Gorostiza Ekaitza Elkarteko ordezkarien eskutik jaso zituzten sariak. Txapel-

dunek txapela, 120 euro eta lore-sorta; bigarrenek 80 euro eta lore-sorta eta hirugarrenak 50 euro eta lore-sorta.

Xabier Zubieta Saria

Ekaitzatik pasatzen lehenbiziko bortziritarra Joseba Larralde izan zen eta berak jaso zuen Xabier Zubieta Saria. Bortziritako emakumerik ez zegoenez, Laura Solari, lehen nafarrari ere eman zioten saria Aimar eta Lorea, Xabier Zubietaren seme-alabek.

ARANTZAKO III. ML

ESKUALDEKOAK

1. Joseba Larralde-Bera	1:38:44
3. Iñaki Mihura-Araioz	1:42:09
7. Asier Apeztexea-Arantza	1:46:54
11. Beñat Saralegi-Lesaka	1:52:53
13. Iñigo Lasaga-Bera	1:54:11
19. Agoitz Altzugarai-Lesaka	1:56:21
24. Peio Etxabide-Lesaka	1:57:39
28. Daniel Parraga-Leitza	1:58:15
41. Fernando Etxegarai-Lesaka	2:00:39
42. Unai Elizagoien-Bera	2:01:29
43. M. Angel Iñarrea-Irurita	2:01:35
48. Xabi Telletxea-Donztebe	2:02:29
52. Imanol Moreno-Bera	2:04:09
53. Asier Irazoki-Bera	2:04:47
55. Aitor Erdozain-Bera	2:06:33
56. Iñaki Larralde-Lesaka	2:06:37
60. Iker Telletxea-Lesaka	2:07:24
66. Tx. Belauntzarán-Areso	2:09:04
69. Imanol Lukanbio-Arantza	2:09:17
71. Xabi Garmendia-Bera	2:09:23
72. Sergio Ariztimuño-Leitza	2:09:41
74. Gabon Gamio-Aniz	2:09:48
77. Jon Otxoteko-Lesaka	2:10:27
78. Joseba Lasarte-Bera	2:10:41
79. Patxi Barberena-Ziga	2:11:18
82. Ugaitz Ado-Bera	2:11:36
83. Julen Pikabea-Bera	2:11:43
85. Ganix Arruti-Lesaka	2:12:22
86. Iñigo Arrieta-Sunbilla	2:12:33
87. Pello Canflanca-Leitza	2:12:40
88. J. Ramon Pikabea-Bera	2:12:40
89. Beñat Mitxelena-Arantza	2:13:02
93. Txutxi Arruti-Lesaka	2:13:50
96. Mikel Arriola-Lesaka	2:14:19
101. Cesar Sarratea-Irurita	2:15:35
102. JM Indakoetxea-Lesaka	2:15:36
109. Jagoba Ramos-Irurita	2:17:21
110. Andoni Garbisu-Sara	2:17:24
112. Jabier Iparragirre-Arantza	2:17:55
141. Adur Yanci-Igantzzi	2:23:28
143. Xanti Lertxundi-Irurita	2:24:02
145. Xabier Iturria-Arantza	2:24:07
162. Santiago Yanci-Elizondo	2:31:38
163. Xabier Portu-Leitza	2:31:43
167. Asier Arburua-Etxalar	2:32:16
171. Angelxo Aranibar-Bera	2:33:16
175. Jabier Larruy-Etxalar	2:33:53
178. Mikel Larregi-Elizondo	2:34:49
181. Clemente Suhas-Urdaz	2:35:02
187. Mikel Leiza-Lesaka	2:37:49
200. Mikel Zenoz-Urdazubi	2:41:07
206. Gotzon Arenas-Arantza	2:44:17
207. Igor Altzugarai-Lesaka	2:44:31
215. Jon Erro-Lesaka	2:46:58
242. Dani Elizalde-Urdazubi	3:00:40

Beti Gazte sokatira taldeari omenaldia Mastegin

Beti Gaztek eta Oiartzuneko apirilaren 7an Mastegin jokatu zuten futbol partidaren atarian omenaldia eskaini zioten hiru kategoriatan Euskadiko txapeldun izan diren Beti Gazteko sokatira taldeko gizaseme eta emakumei.



JOSE MARI TELLETXEKA



Lasa eta Lizaso aulki gurpildunean eta Esnal eta Sagarmendi, adimen urritasuneko mailan, beraien txapelekin. UTZITAKOIA

Lasak eta Lizasok irabazi dute pilota egokituko finala

Gurpildun aulkiko final estuan lesakarrak eta usurbildarrak 25-24 irabazi zieten Navaridas sunbildarrari eta Etxezarretari

TTIPI-TTAPA

Hunkigarria eta zoragarria izan zen Beasaingo pilotalekuan apirilaren 7an bizitakoa. Bertan Esnal-Sagarmendi eta Laso-Lizasok jantzi zituzten

II. Master Cup EPE Irekia pilota egokituko txapelak. Ikusgarritasunaren helburua, txapelketa honen benetako arrazoia, erabat bete zen Beasainen izandako festan eta

kirolariek ere euren alea jarri zuten, bat baino gehiago harritu zuen gaitasuna erakutsiz.

Adimen urritasuneko mailan argi geratu zen txapelketaren lehiakortasunak eta kameren presioak kirolari hauei ere eragiten diela. Horixe izan zen Iraitz Huegunen kasua. Donostiarrek sekulako joa eta dohainak ditu, baina egun handienean nahi baino huts gehiago egin zituen eta ezin izan zuen iaz lortutako garaipena errepikatu.

Leire Esnalek eta Eneko Sagarmendik, aldiz, partida sendoa jokatu zuten. eta merezi-

tako garaipena eskuratu zuten (17-25).

Gurpildun aulkian final estua

Eta zer erran gurpildun aulkiko finalaren inguruan, pilotazaleak txunditu zituzten kirolari bikain hauen jardunarekin, euren aulkiak dantzatu eta pilota jotzeko erarekin. Finala lehen aldia izan zen ikusle aunitzentsat, baina ziur ez dela azkena izanen, pilotarien mugimenduen plastikotasunak bat baino gehiago harrapatu zituen eta. Gainera, halakoe-tan horrenbertze eskertzen den lehiakortasuna izan zuen finalak, hasi eta buka, alde batera zein bertzerako aldeekin. Hemen ere tentsioa ikaragarri antzeman zen azken tantoetan, bikote bakoitzak falta bat ere egin zuen sakez, baina azkenean partidaren gehienean aitzinetikjoan ziren Joseba Lasa lesakarrak eta Beñat Lizaso usurbildarrak lortu zuten garaipena, partida bikaina jokatu zuen atzelari usurbildarrak gibelean egindako tanto bati esker (24-25). Javier Etxezarreta donostiarrek eta Asier Navaridas sunbildarrak ere final ona jokatu zuten eta garesti saldu zuten txape-la.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saioa Jaurena Europako txapeldun

Espainiako emakumeen errugbi selekzioa Europako txapeldun suertatu da. Talde horretan aritu da Saioa Jaurena baztandarra. 9.000 lagunek ikusi zuten martxoaren 30ean Herbeheren kontrako finala (54-0), estatu espainiarrean nesken errugbi partida bat ikusi duen jendetzarik handiena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mitxelena bigarren Euskadiko txapelketan

Martxoaren 31n jokatu zen Erriberrin Euskadiko master txirringularitza txapelketa. Transbidasoa-Euromaster-Bodegas Inurrieta taldeko Luciano Mitxelena lesakarra hirugarren izan zen master60 kategoriako lasterketan eta Euskadiko txapelketan, berriz, txapeldunorde.

APIRILAK 17 - MAIATZAK 2

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

LEKAROZ

'Mitoak eta harresiak suntsituz'

Zubigainean, apirilaren 15ean eta 17an, 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era, hurrenez hurren.

ETXALAR

Usoa kooperatibaren batzarra

Kultur etxean, apirilaren 20an, 19:30ean.

IGANTZI

Guraso eskola

Eskolan, apirilaren 29an, 17:00etan.

ARANTZA

'Cannabisak zure garunari eragiten dio' tailerra

15-20 urte bitarteko gazteentzat. Baskulan, maiatzaren 3an, 18:00etan. Izen-ematea: 634 22 36 59.

LESAKA

'Sare-on: arriskuak, aukerak eta prebentzioa'

Gurasoentzat zein gaztetxoekin esku hartzen dutenentzat. Erabilera anitzeko aretoan, maiatzaren 6an eta 13an, 17:00etatik 18:30era. Izen-ematea: 634 22 36 59.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

Ipuin-kontalaria

Txatxilipurdi elkarteak antolatuta. Liburutegian, apirilaren 23an, 17:00etan.

ELIZONDO

Ipuin antzeztua

Urko Redondo eta Ainara Gurrutxagaren eskutik. Liburutegian, apirilaren 30ean, 17:30ean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

GOIZUETA Goizutrail

25 eta 10 kilometroko ibilbideak aukeran. Maiatzaren 11n.

BERA

'Musua' ikuskizuna

Altzateko frontoian, maiatzaren 4an, 17:00etan.

LESAKA

'Drag-e uraren bila' antzezlana

Lau urtetik aitzinerakoentzat. Maiatzaren 5ean.

TAILERRAK

IGANTZI

Erorketak saihesteko ikastaroa

Osasun Etxean, apirilaren 23an, goizean.

LEITZA

Familien txokoa

Udaletxean, apirilaren 30ean eta maiatzaren 14an eta 28an, 11:00etatik 12:30era.

DONEZTEBE

'Birziklatuz sortu'

Sormen Tailerreko kideen lanak ikusteko aukera ere izanen da.

Liburutegian, apirilaren 25ean, 17:00etatik 19:00etara.

SARA

Joskintza tailerra

Modu Bat tailerrean, apirilaren 30etik ekainaren 25era asteartero, 09:00etan edo 17:30ean (bi orduz).

ZINEMA

DONEZTEBE

'Super Lopez' filma

Udalak antolatuta. Zineman, apirilaren 21ean, 18:30ean. Sarrera: 2 euro.

'La libreria' filma

Zineman, apirilaren 26an, 19:30ean.

LEHIAKETAK

BERA

Baztan-Bidasoko Bertsopaper Lehiaketa

Maiatzaren 17a arte.

Besta egitaraurako azal-lehiaketa

Maiatzaren 31 arte.

DONEZTEBE

Kartel Lehiaketa

Maiatzaren 8ra arte.

II. Argazki Rallya

Maiatzaren 11n.

IRTEERAK

BORTZIRIAK

Baigorri

Nafarroaren Eguna. Apirilaren 28an.

IGANTZI

Burgira

Maiatzaren 4an.

KIROLA

GOIZUETA

Goizutrail

Maiatzaren 11n.

BERROETA

Mendi Maratoi Erdia

Maiatzaren 19an.

ZUGARRAMURDI

Ibilaldi gidatua

Apirilaren 22an.

KONTZERTUA

ELIZONDO

Musika eskolako ikasleak

Arizkunenean, apirilaren 17an, 16:30ean.

Makala & Jimmi Bidaurreta

Futbolin ostatuan, apirilaren 20an.

LESAKA

Musika eskolako ikasleak

Harriondoan, apirilaren 17an, 18:00etan.



ELIZONDO Udaberriko feria

XXI. Ahari Lehiaketa eginen dute.
Apirilaren 26an.

LEKAROZ

Lekaroz, Doneztebe, Leitza eta Donostiako ikasleak

Kiroldegian, maiatzaren 4an, 17:00etan.

SALDIAS

Malerreka Kantuz

Maiatzaren 4an, 12:00etan, plazatik abiatuta.

AZOKAK

ELIZONDO

Artisau-azoka eta tailerrak

Plazan, apirilaren 18an.

Udaberriko feria

XXI. Ahari Lehiaketa.
Apirilaren 26an.

ERRATZU

Artisau-azoka eta tailerrak

Kanpinean, apirilaren 20an.

URDAZUBI

Artisau-azoka eta tailerrak

Haurrentzako tailerrak.
Plazan, apirilaren 21ean.

OSPAKIZUNAK

SUNBILLA

Pintxo Astea

Parte-hartzaileen artean zozketak eginen dituzte.

Apirilaren 18tik 20ra bitarte.

SARA

Eskola publikoko burasoen antolatutako bazkaria

Apirilaren 26an.

1813-1814 Euskal Herria

Napoleonen tropenganik suntsituta

Suharriaga parkean, apirilaren 22an, 12:30ean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Xabier Soubeleten margolanak

Arizkunenean, apirilaren 25era arte, 19:00etatik 21:00etara (Aste Santuan 12:00etatik 14:00 arte eta 19:00etatik 21:00 arte).

Nire aukera

«Argazkiak ateratzeko aukera momentu oro ikusten dut»

AINHOA JUANOTENA DONEZTEBE

Ile-apaindegiko lanak uzten dizkion momentu libreak «alabekin egoteko, familiarekin planak egiteko, deskantsatzeko, lehengusinarekin edo bakarrik ibiltzera joateko...» baliatzen ditu Ainhoa Juanotena. Oinez egiten dituen ibilalditxo horietan inguruari erreparatzeko aukerarik ez du galtzen eta bidean geldialdiak egiten ditu: «argazkizale amorratua naiz eta argazkiak ateratzeko aukera edozein momentutan ikusten dut, hortaz, noan tokira noala kamara ez bada mugikorra eramaten dut». Argazki bakoitzak «momentu eta bizipen bat eta horrek eragindako sentimendua» gordetzen dituenaz, horiek oroitzapen gisa gordetzea «hagitz

polita» iruditzen zaio. Argazkien aitzakiapean, naturaz gozatzeko aukera aurkitu du doneztebarrak: «duela gutti mendi-bueltatxoak egiten hasi naiz. Ederrak dira naturaren erdian atera daitezkeen argazkiak!». Berriki hasia da eta momentuz Doneztebe inguruan ibiltzen da. Urruti joan gabe, «txoko politak» izan badaudela argitu du



eta horien artean Leurtzako urtegia eta Doneztebe-Legasa-Gaztelu- Doneztebe bidean, bukaeran herria goitik ikusten den tokia» nabarmenduko litzuzke. Kirolaria baino «kirolzaleagoa» da: «Realzale amorratua naiz eta orain Errekako seniorrak eskubaloian egiten ari diren denboraldi borobilarekin ere aunitz gozaten ari naiz, lerro hauen bidez zoriondu nahi nituzke». Gustuko du eskubaloia, maite du futbola eta «haurrak ttikiak zirelarik» partidetara joateari utzi behar izan zion arren, ohitura berrartzen hasia da: «Anoetan jokatzeko dutenetan joaten saiatzen naiz». Partida bakoitza «gozamina, azaldu ezin den sentsazioa» da berarentzat, eta txuri-uridin sentitzea «izugarria» dela gaineratu du. *Momentu bakoitzari berea* errana ederki aski bete du Juanotena: «amatasuna ez da zaletasunak garatzeko oztopo izan eta atautxi-amatxiei esker lana eta zaletasunak uztartzea erraza da». Duenarekin eta «alaben poztasunarekin» aski du zoriontsu izateko. Horrek, ordea, ez dizkio ametsak itzalarazi: «etorkizunari Realta txapeldun izatea eta jokalaria ohi bat bisitatzeko Uruguaira bidaiaria egitea gustatuko litzaidake».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda bat bere lur eremuarekin salgai. ☎ 661 12 15 40.



MOLDATU HOME
INMOBILIARIA
HOME STAGING

T. 661875785
www.moldatuhome.com
info@moldatuhome.com

SALGAI



LESAKA

Laugarren etxebizitza argitsua salgai igogailuarekin.

3 logeta, sukalde, jantoki-egongela handia, bainua, trastelekua eta bi balkoi dauzka.

Gas Natural berogailua.

Konponketa batzuk behar ditu.

128.000 euro.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kosta tropikalean, partikular batek lagun bat edo birentzako apartamentua errentan emateko du, maiatzean, bi asterako edo hilabete osorako. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terraza, aire girotua eta hagitz ongi hornitua. ☎658 94 37 02.

LESAKA. Pisua errentan emateko. Beheko sua, sukalde elektriko, bajera eta ganbara ditu. ☎943 63 34 30.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan, trastelekua salgai. Sarrera kaletik. Al-tuera bikoitza dauka. Moto tiki bat eta bizikletak sartzen dira. ☎618 46 92 88 / 639 62 18 47.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eltzetako plazan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎636 84 75 10.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak edo haurrak zaindu edota etxeko lanak egiteko esperientziadun emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. ☎631 12 52 73.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

Gizonezkoa edozein lanetan aritzeko prest. Nekazaritzan, abeltzaintzan eta mendiko lanetan esperientziaduna. ☎631 82 61 47.

Adinekoak edo haurrak zaintzen interna moduan esperientziadun emakumea lana behar du. ☎643 54 96 22.

Emakume arduratsua lan bila. Interna edo orduka adinekoak edo haurrak zaindu eta garbiketa lanak egiten litzuzke. Erreferentzia oso onak. ☎602 18 24 68.

Arotz lanen Erdi Mailako Zikloa egina duen neska bat horrekin zerikusia duen lan bila. Beste arloren batean aritzeko ere prest: lantegi batean, garbiketetan, dendaren batean... Horietan esperientziaduna. Neska langilea eta ikasteko gogo handiarekin, beti jarrera baikorrarekin. Deitu edo Whatsappez: ☎646 50 18 07.

ESKAINTZAK

BERA. Frantses pixka bat dakien neska eta mutila behar dituzte sei hilabetez Larungo benta batean zerbitzari aritzeko. ☎607 56 60 22.

BERA. Errekalde ostatuan sukaldaria behar dute egun osoz. Curriculumak: errekaldeostatua@hotmail.com.

BERA. Ostatu batean asteburu gaue-tarako barran lan egiten esperientzia duen pertsona bat behar dute. ☎663 70 86 15.

LEITZALDEA. Lantegi batean tornularia behar dute. Bi urteko esperientzia eskatuko da eta programatzeko ezagutza. ☎678 71 58 34.

BERA. Jatetxe batean sukaldari laguntzailea behar dute egun osoan aritzeko. Esperientziaduna. Bidali curriculumak: icelayetam@gmail.com.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,20
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,00/5,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 62 €

Zerri gizona 1,274 €

Zerramak 0,540€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 29tik apirilaren 5era bitarteko prezioak)

URDAZUBI. Indianobaitan zerbitzaria behar dute asteburuetarako. Frantses pixka bat dakiena bada, hobe. ☎620 29 01 92.

BERA. Esperientzia duen estetizista behar dute. ☎948 63 07 60.

ZUGARRAMURDI. Altxatenea jate-txean sukaldari laguntzailea behar dute maiatzetik abendura bitarte eguerdiko zerbitzuan lan egiteko. ☎948 59 91 87.

IRURITA. Haurrak zaindu eta etxea garbitzeko pertsona arduratsua baten bila ari gara. Astelehenetik ostiralera izango litzateke lana, goizez bakarrik. ☎ 607 23 92 02.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI



Kia Sorento autoa salgai. 5 ate, 140 CV. Diesel. 4x4 Reduktorarekin. 2005ekoa. 161.000 KM. Irratia CD BLUETOOTH. IAT-ITV pasatuta arazorik gabe. Hagitz egoera onean. 3.900 euro. ☎666 51 22 02.

TAILERRAK



DENETARIK

SALEROSKETAK

Haragia gordetzeko **kamara** salgai, desmuntagarria, berri-berria, boz-pasei hilabete. Barrenetik 5 metro kuadro ditu. ☎661 34 56 37.

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

RENAULT KADJAR ZEN TCE 140 CV
20.100 euro - Sustapen finantzarioei lotuta

RENAULT MEGANE ZEN TCE 140 CV
16.800 euro - Sustapen finantzarioei lotuta

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es



744 484 361

ttipi-ttapa

BERAKO UDALA

Oihan enkantea

BERAKO Udalak plegu itxiaren bidezko enkante publikoan salgai jarriko du Bordaxuri eta Borda-koerreketa parajeetako oihan-aprobetxamendua.

Proposamenak 2019ko apirilaren 25eko 13:30ak arte aurkeztuko dira.

Baldintza pleguak Udal Idazkari-tzan, 012 Zerbitzuan, web-orrian (www.bera.eus) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai egongo dira.

Bera, 2019ko apirilaren 5ean Alkatea, Josu Iratzoki Agirre

Sampi Aragón

Oporretara joateko alokatzen dira





DONEZTEBE | 948 450 354

BERAKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa -HIRIGINTZA-

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2019ko otsailaren 19an egindako bilkuran, U.U.16.1 unitatearen kontentsazio batzordearen estatutuen proiektua onetsi zuen hasiera batez.

Espedientea jendaurrean izanen da hoguei laneguneko epean, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2019ko apirilaren 2an Alkatea, Josu Iratzoki Agirre

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

KONTATU KONTUAK



Berako dantzariak sagardotegian. Sagardotegi denboraldia aprobetxatuz, Berako Gure Txokoa dantza taldekoak Urrietako sagardotegi batean izan ziren.



Almandoztarrak sagardotegian. Joan den martxoaren 30ean argazkiko almandoztar kuadrilla Astigarragan izan zen. Sagardotegian bapoz bazkaldu ondotik, Hernanin segitu zuten bestan.



Beratik Elizondora. Berako abesbatzakoak Elizondoko Benito Menni egoitzan izan ziren joan zen apirilaren 6an, 28 urte abesbatzako kide izan zen Juan Enrique Abrili bisita egin bidenabar. Kontzertu berezi eta hunkigarria izan zen, bertako egoiliarrek eta familiak ederki gozatu eta eskertu zutena.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaiguztu!

Bidali info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira. Edo etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

HERIOTZAK

- **Felipe Baldanta Diaz,**
Elizondokoa, martxoaren 29an, 82 urte zituela.
- **Antonio Iltzauspe Sukilbide,**
Erratzukoa martxoaren 30ean, 100 urte zituela.
- **Jose Ramon Zubieta Lujanbio,**
Goizuetakoa, apirilaren 2an, 88 urte zituela.
- **Eugenio Arretxea Ariztia,**
Iruretakoa, apirilaren 3an, 84 urte zituela.
- **Teresa Txoperena Zozaia,**
Igantzikoa, apirilaren 3an, 93 urte zituela
- **Juan Manuel Matxiarena Aranibar,**
Berakoa, apirilaren 5ean, 81 urte zituela.
- **Margarita Zabaleta Lizarraga,**
Leitzakoa, apirilaren 6an, 96 urte zituela.

SORTZEAK

- **Mikel Aihotz Taberna Lazkano,** Lesakakoa, martxoaren 26an.
- **Aia Perotxena Elgorriaga,** Lesakakoa, martxoaren 26an.
- **Gheorghe Nicolas Paulescu,** Lesakakoa, apirilaren 5ean.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDORAN
AGÜE, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

**ESKELAK eta
HILBERRIAK**
eguneratuak
erran.eus
webgunean



URTEURRENA



**Bernardo
REKALDE BARRENETXE**
1926/12/14-2017/04/15
II. URTEBURUA
Bizitorea eta bizizalea izan zinen.
Halaxe ezagutu zintugun;
halaxe izan nahi genuke.
ZURE FAMILIA



URTEURRENA

Mateo MENDIBURU GORTARI
Elizondon, 2017ko apirilaren 24an · II. urteurrena

Beti irrifarrea zenuen lagunmin,
gauza denen gainetik aitzinerat ekin,
bizitzari helduaz gogo guziekin.
Indar hau utzi duzu betiko gurekin,
maite izan zaitugun familiarekin.
Bi urte badira gure ondotik joan zinetik,
eta elkarrekin pasatako
orotzapen ahaztezin horiek
betirako geldituko dira gurekin.



EMAZTEA ETA SEMEA

Bere aldeko meza apirilaren 28an egingen da, 10:00etan Elizondoko elizan.

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA **948 63 74 04**


BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA

ETXEETAN ZERBITZUAK

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA
.....
LOREAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK




Goiuri Zabaleta Rodriguez leitzarrek apirilaren 15ean 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik. Gora gure pilotaria!




Silbia Etxarte Abuin lesakarrak apirilaren 20an 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Gorka anaiairen partetik. Muxu haundi-haundi bat!



Urdazubiko **Arkaitz Etxegarai Alzuiet**ek apirilaren 9an 6 urte bete ditu. Zorionak bihurribu etxekoan partetik.



Aunitz urtez **Beñat!** Zure lehenbiziko urtebetetzea betiko alaitasun eta irri politi horrekin pasatzea espero dugu! Muxu bat! Familia eta bereziki Kattalin.




Eñaut Altzuguren Iratzokik apirilaren 22an 3 urte beteko ditu eta bere arreba **Xuanek** marxoaren 23an 5 urte bete ditu. Zorionak Pirritx eta Porrotx pareari familiaren partetik.



Zorionak amatxi **Xexili!** Apirilaren 24an urteak beteko dituzu eta elkarrekin ospatuko dugu zure eguna. Muxu asko!!



Ainhize Arnedo Mitxelena gure neskatxak 5 urte beteko ditu apirilaren 26an. Aunitz urtez bihotza! Zure bizkotxo gustura janen dugu!



Doneztebeko **Hegoa Irigoien Etxenikek** apirilaren 15ean urte bat bete du. Zorionak printzesa, familiaren partetik.



Arantzako **Mari Carmen Leiza Bergarak** urteak beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak Iratxe, Leire eta Ana Mariren partetik. Muxuak eta besarkada haundi bat.



Iruñeko **Unai Gorraiz Jorajuriak** apirilaren 2an urte bat bete du. Aunitz urtez Sunbillako ataubxi, amatxi, familia guztia eta bereziki Gorka eta Aneren partetik.



Arantzako **Mikel Barrenetxe Alzuri** gure igerilari tikiak 2 urte beteko ditu apirilaren 28an. Muxu aunitz Arantzako eta Erratzuko familien partetik eta segi putxu-putxuan gozatzen!



Irai **Rekondo Rico** leitzarrek 2 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak gure aizkolari txikiari! Muxu bat aitaixo eta amatxoren partetik.



DISEINU LANAK:
 Logotipoak
 Txartelak
 Oroigarriak
 Argitalpenak
 Egutegiak
 Boletoa
 Web orriak
 ...

INPRENTA LANAK:
 Paperean
 Rotulazioak
 Lona
 Biniloak
 ...

948 635 458
 kulturkari.com




PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

ZORTZIKOA

Aurki itzazu bi irudien artean dauden zortzi aldeak.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

731

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

2 sarrera

BAZTAN
ABENTURA PARK

ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA

SARRERA

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

DONOSTIA Y SAN SEBASTIAN

AQUARIUM

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

Eureka!
Museoa+Planetario

Eureka!
Museoa+Planetario

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

LA RHUNE

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA

Wow PARK
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LIBURUAK

LARUNBATA

MATTIN ET KATTIN

**Mattin eta Kattin
Larunbata**

ekar **Katxiporreta**
www.katxiporreta.eus
www.elkarargitaletxea.eus

LA GUNTZAI LEAK

MAUKA
MUSIKAGINTZA

www.maukamusik.com

AQUARIUM

www.aquariumss.com